



Mentxu Peña Europako mendirik altuenean

03

Marimendi, 40 urtetik goitiko emakumezko mendizale euskaldunen taldeko kidea da Mentxu Peña. Uztailean Europako mendirik altuena den Elbrusera joan ziren.



Iñaki Bereau igantziarra Euskal Herriko txapeldun

44

Iñaki Bereauk lehen aldiz irabazi du Euskal Herriko lasto altxatze txapelketa. Euskal Herrikoa ez ezik, Nafarroako eta Zazpi Herrialdeko txapelak ere lortu ditu aurren.

2008ko urriaren 16a • XXVIII. urtea
www.ttipi.net



ASTELEHENETIK LARUNBATERA BI TXONDOR EGINEN DIRA

04 Lehengo modura egur-ikatza egiten ikasteko aukera Saran



ORDOKI

altzariak

ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA
Estilo ugariko mobleak



ETXALARko

kultur egunak

Urriaren **24a**, ortzirala
TXISTU KONTZERTU DIDAKTIKOA
Ordua: 15:00etan
Tokia: Kultur Etxean
Irungo txistularien banda

Urriaren **25a**, larunbata
BERTSO AFARIA Lesaka vs Orio
Ordua: 21:00etan
Tokia: Herriko Ostatuan

Urriaren **28a**, asteartea
**HITZALDIA: GUDA ZIBILA
ETA ERREPRESIO FRANKISTA**
Ordua: 19:30ean
Tokia: Kultur Etxean
Hizlaria: Iñaki Egaña historialaria



Afarirako txartelak salgai izanen dira
aldez aurretik Herriko Ostatuan eta
Elutsan



ANTOLATZAILEA:
Etxalarko euskara
Batzordea



LAGUNTZAILEA:
Etxalarko Udala

DATUAK...

- 40 urte baino gehiago dituzten emakumezko euskaldunen mendi taldea da Marimendi. 2005ean sortu zen eta igo dituzten mendi altuen artean daude Mont Blanc eta Elbrus. Azken hau Europako mendirik altuena da.
- Marimendi ezagutzeko aukera eman digu Mentxu Peñak. Taldeko kidea da bera, eta sortzez irundarra bada ere, duela 18 urtetik Arantzan bizi da.
- 19 emakume abiatu ziren uztailaren 15ean Euskal Herritik, eta 18k igo zuten Elbrus uztailaren 23an. Tartean zegoen Mentxu.



Mentxu PEÑA *Marimendi emakume mendizaleen taldeko kidea*

UTZITAKO ARGAZKIA

«Adinak ez du gaitasuna mugatzen eta emakumeak aisialdirako eskubidea du»

Goizalde URDANPILLETA

Nolatan sortu zen Marimendi taldea?

2005ean izan zen. Alpe eta Pirinioetan emakumeak gutti ikusten dira, eta horri bueltak ematen hasi zen bat. Bati eta bertzeari deituz elkartzen hasi ziren eta horrela sortu zen Marimendi. Talde berezia da, baldintza batzuk bete behar baitira: 40 urtetik goitiko emakume euskalduna eta mendizalea izatea.

Zergatik sartu zinen taldean?

Irungo emakume batek mendian ibiltzen naizela bazekien eta gure moduko emakumeen talde bat zegoela erranez deitu zidan. Orduan Mont Blanc (4.807 m) mendira joateko proposamena egin zidan baina lanagatik ezin izan nuen. Izugarria izan omen zen. Azaro aldera berriz deitu zidan Elbrusera joateko asmoa zutela erranez eta animatzeko. Baietz, ezetz... Bueltaka ibili nintzen eta azkenean baizkoa eman nuen. Gainerakoan, nik ez dut deus sinatu. Prest nintzela erran eta horrela sartu naiz. Elbrusera joan aitzinetik egindako irteeratan ezagutu ditut taldekoak.

Zein dira Marimendiren helburuak? Aldarrikapen hauxe dugu: adinak ez duela pertsonaren gaitasuna muga-

«Goian nengoela ez dakit konturatu ote nintzen non nengoen. Negarrari ekin nion. Esperientzia izugarria da norbera bakarrik ibiltzen ahal dela ikustea. Izugarria da»

tzen. Hori norberaren buruan dago, eta gogoia izanda, osasunez ongi egonez gero, eta kasu honetan, mendian ibiltzeko ohitura izanez gero, egin daiteke. Horrez gain, emakumeak bere aisialdia hartzeko eskubidea duela ere aldarrikatu nahi dugu.

Elbrus Europako mendirik altuena da. 5.642 metro ditu...

Lehenago ere asmo horrekin ibilia nintzen. Irungo Mendizale Elkartearekin Elbrusera joatekoak ginen, baina Georgian, orain bezala, arazo politikoak zeuden eta bertan behera utzi genuen. Elbrus berriz aditu nuenean zirrara sentitu nuen eta beldurra ere bai, altuerari. Badakit zer den 4.000 metro pasatzea eta aunitz sufritzen da. Saiatu behar nuela pentsatu nuen eta ezin baren lehen bezala itzuliko nintzela.

Eta harat ailegatuta, zer?

Uztailaren 16an ailegatu ginen. 2.000 metrora dagoen herri tiki bat da, glaziar baten azpian. Telesila batean altuera gehiago hartu eta hurrengo egunetan leku berean goiti eta beheiti ibili ondotik, 23an igo ginen. Elbrus mendiko azken aterpea 3.900era dago.

Zer moduzkoak dira baldintzak?

Ez da erraza. Eskuoihaltxoekin garbitzen ginen eta komunak ez daude emakumeentzako prestatuak. Lo burdinezko kupeletan egiten genuen. Jatekoarekin, ordea, ezin kexatu.

Elbrus igota kontent zaude?

Hagitz kontent. Goian nengoela ez dakit konturatu ote nintzen non nengoen. «Lau haizetara, Euskal Herritik Elbrusera» kantatzen genuen beti, eta tontorrean ere bai. Negarrari ekin nion. Esperientzia izugarria da norbera bakarrik ibiltzeko gai dela ikustea. Aunitzetan gure buruari ezin dugula erraten diogu eta hori gainditzen da. Izugarria da.

Etorkizunera begira zer?

Ez dakigu oraindik. Mendi altuak bi urtetik behin egitekotan geldituak gara baina ez dugu deus erabakia. Azaroran Arantzan bilduko gara.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Duela bi urte Saran Xalbat (Biloria, Nafarroa) ikazkina aritu zen txondorra egiten. Irudi hauetan ageri dena da Xalbat, urrats ez urrats txondorra egiten. Aurten bertze ikazkin bat etorri da Sarara: Koldo Aznarez.

Egur-ikatzak nola egiten den ikusteko aukera dago Saran aste honetan

Asteazken eta larunbatean jende guztiarentzat irekia egonen da

Montxo Armendarizen *Tasio* filmarekin ikusiko zuten aunitzek lehenbiziko aldiz txondorra, eta horrenbertzez, ikatza nola egiten den. Bertatik bertara ikusi, ordea, guttik egin izanen dute. Baina inoiz ez da berandu eta Saran horretarako aukera dago aste honetan. Lizarra aldetik Koldo Aznarez ikazkina etorri da eta txondorrak egiten dihardu Sarako Garbala auzoan. Astelehenaz geroztik hantxe dago eta larunbata bitarte izanen da. Astelehen, astearte, ortzegun eta ortziralean Sara inguruko ikastetxeetatik 5 eta 11 urte bitarteko neska-mutikoak pasatuko dira –guztira Lapurdiko 60-70 ikastetxe gonbidatu dituzte–. Asteazkenean eta larunbatean, berriz, edozein joan daiteke. Horretarako, aitzinetik Sarako Turismo Bulegora deitu behar da, (0033) 559 542014 telefonora. Herriko Etxetik erran digutenez, Saran garai bateko txondorren arrasto andana omen dago, eta horietako batean, Garbalan, dago ikusgai aste honetan txondorra. Duela bi urte egin zuten Olentzero deitu duten ekimen hau lehenbizikoz Saran eta aurten ere berriz antolatu nahi izan du Herriko Etxeak.

Gurutze PIKABEA

Ikatza lanbide izan duen azken ikazkinetako bat da Koldo Aznarez. 45 urteko ikazkina Lizarra aldean (Nafarroa) bizi da eta orain erakustaldiak egiten ibiltzen da herriz-herriz. Garai batean, ordea, ikazkinek mendira joan behar izaten zuten, oraingo makineria eta modernitate gabe. Hilabeteak mendian pasatu eta han eta hemen txondorrak egiten ibiltzen ziren. Baita Saran ere. Mixel Urbistondo Sarako Herriko Etxeko zinegotziak azaldu digunez, «Saran garai batean anitz egiten ziren. Herriak 1.600 hektarea ditu oihanetan eta nonahi ikusten dira garai batean ikatza egiten erabilitako tokien arrastoak». Orain, baina, ez da ikazkinik gelditzen herrian. Lizuniaga aldean, Ibantelin, Usategietan, Garbalan, Sualmendingin... Haritzak eta pagoak zeuden tokiak aukeratu zituzten Sarako ikazkinek txondorrak egiteko.

Mixel URBISTONDO Sarako zinegotzia



Ez da lehenbiziko aldia horrelako ekimen bat antolatzen dela Saran...

Bigarrena da. Lehenbizikoa duela bi urte egin zen, eta orduan Xalbat Biloriako ikazkina etorri zen. Gazteei garai batean hemen ikatza nola egiten zen erakutsi nahi diegu, eta Olentzero izena eman diogu ekimen honi, Olentzero ikazkina zelako. Horretarako toki bat bilatu dugu Garbala auzoan, leizeetatik hurbil. Aste honetan han izanen da ikazkina goizez eta arratsaldez. Nahi duen guztia etortzen ahal da, egun batzuetan ikastetxeetako ikasleak eta asteazken eta larunbatean edozein joan daiteke.

Zenbateko txondorra egingen ari da?

Hori ikazkinaren esku utzi dugu. Bera arduratuko da guztiaz eta gu laguntzen ari gara, berak behar duen guztian. 4.000 kilo egur jaso dira eta bi txondor egin eta hortik aterako dugu ikatza.

Interesatua dagoenak, zer egin behar du?

Turismo Bulegora deitu dezake. Dohainik da eta ikazkina Garbalan egonen da eta han emanen ditu azalpenak. Ez daki euskaraz eta gaztelaniaz emanen ditu azalpenak, baina moldatuko gara. Halere, eskainiko diren bertze bi hitzaldiak euskaraz izanen dira, ingurumenari eta

mitologiari buruzkoak izanen dira.

Saran garai batean ikazkin aunitz zeuden?

Bai, garai batean anitz zeuden. Baserritarrek anitz egiten zituzten. Sarak 1.600 hektarea ditu oihanetan eta nonahi ikusten dira garai batean ikatza egiten ziren tokien arrastoak. Gainera, orain badira oihaneko zati anitz belagaiak egiteko baliatuak, deseginak izan direnak.

Sosa ateratzeko adina ikatza egiten ote zen Saran?

Bai. Garai batean horretatik bizi ziren herrian. XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako dokumentu zahar batzuk antzeman ditugu eta horien arabera, sasoi hartan, Sarako bi langintza edo zeregin inportanteenak ardi ilea eta ikatza ziren.

«XIX. mende bukaeran eta XX.aren hasieran, Sarako langintzak ardi ilea eta ikatza ziren»

Kiloka eta kiloka egur mugitu behar izaten dira ikatza ateratzeko. Garai batean, 150.000 kilo egur, erraz. Adibide bat emate aldera, 10.000-12.000 kilo egurretatik 4.000 kilo ikatz inguru ateratzen dira. Baina haizearen eta egur motaren arabera aldatu egiten da kopurua. Behin egurra jaso eta pilatutakoan puskatu egin behar da, mazoarekin. Eta materiala eskura dagoenean, txondorraren egitura egiten hasi behar da: egur puska lodienak azpian, eta meheenak gainean. Egurra paratzean harriak jartzen dira, eta honen gainean adarrak. Egitura antolatzerakoan tximini itxurako bat ere uzten da. Zenbaitzuk lastoa botatzen dute gainera, eta gero, honen gainera lurra.

Egitura egina egonagatik ere, egurra egosi bitartean, ikazkinak txondorrarekin lanean segitu behar du. «Betagarri» deiturikoa sartzan dute orduan, hutsuneak betetzeko. Eta nola nabaritzen da ikatza egina dagoela? Kearen koloreari begiratuta. Kearen kolorea iluntzen denean dago ikatza egina. Horretarako, noski, arreta haundiz egon behar du ikazkinak, txondorra irekiz gero, galduta baitago barrukoa.

ASTE GUZTIA GARBALAN

Garai bateko ikazkinek bezala, Koldo egur-ikatza egiten ari da Garbalan. 4.000 kilo egur jaso dituzte horretarako eta horretatik 600-700 kilo inguru ikatz lortuko dituzte egin dituzten bi txondorretan. Helburua zein den gal-

detuta, zera erantzun digu Urbistondok: «gazteei garai batean hemen ikatza nola egiten zen erakutsi nahi diegu». Bide beretik jo du François Pouyet Sarako leizeetako zuzendariak ere: «gure kulturari nagiz inportantea izan den zerbait azaltzea da asmoa».


Goizean zein arratsaldean joan daiteke bisitan, 8:30ean hasi eta 13:00etatik 14:00etarako atsedenaldiaren ondotik, 16:30ean hartuko da azken bisita. Bitarte horretan Koldok azalpenak emanen ditu. Ikazkinaren azalpenez gain, bertzelako informazioa ere eskura izanen dela kontatu digu Pouyetek: «Xan Errotabeherek mitologiari buruzko kontuak azalduko ditu eta Patrick Artolak ingurumenari buruz hitz egingen du».

Sara eta inguruko 60-70 ikastetxeetako 5 urtetik 11ra bitarteko ikasleak gonbidatu dituzte ikazkinaren ondora. Momentuz, Lapurdira mugatu dute eskaintza, baina Pouyetek erran digunez, «aurtengoak ongi funtzionatzen badu, agian hurrengoan Hegoaldeko ikasleak ere gonbidatuko ditugu: Urdazubi eta Zugarramurdikoak...».

PROZESUA

Ondoko marrazkian txondorra egiteko urratsak ageri dira.

- 1- Oinarria
- 2- Egurrak
- 3- Betagarria
- 4- Lastoa
- 5- Lurra



HERRIKO LANGINTZA

Sarako dokumentu zaharretan agertu denez, XIX. mendearen akaberan eta XX.aren hasieran Sarako herritarrek bi zeregin nagusi zituzten: ikatza eta ardi ilea. Bi lanabes horiekin lan eginez ateratzen ziren aitzinera saratarak. Horixe bera berresten du 1898 eta 1903 urteen artean Claude Augé idazle eta editore frantsesak osatu zuen Larousse hiztegi entziklopedikoak. Frantsesez idatzia dagoen arren, zera dio hiztegiak Sarako herriari buruz: «Behe-Pirinioan, Baionatik 28 kilometrorra dagoen herria. 1.927 biztanle ditu. Langintza nagusiak: ikatza eta ardi ilearen komertzioa dira». Lehena-goko bertze dokumentu zahar batek, berriz, Sarak 1850. urtean 2.004 bizi-lagun zituela dio, eta orduko zeregin nagusienak ikatza eta ardi ilea zirela. Biztanleriaren beherakada joera hori

Ameriketara artzain jende aunitz joan zelako gertatu zen.

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arotzena, Amaia Odrizola, Maite Oteiza, Jaione Otxandoreña, Xan Harriague, Rakel Amigo, Irtaxe Kontsumitzaileen Elkarteak...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugaramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2008ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	34 €
Espainia	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leizta	27 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Berako Udalak desagertarazi du Zalaingo auzoak industrialdearekiko zuen babesa (bidea)

Pasa den uztailen hasi ziren Zalaingo C12 poligonoa urbanizatzeko lanak. Zalain auzorako sarbiderik onenak poligono hori zeharkatzen zuten ertz batetik. Bide hau (lehenagoko gurdi-bidearen orde) 1989. urtean eraiki zen, orduan zoruaren jabea zen lesakako Laminazioak eta Berako Udalaren artean gauzatu zen akordio baten ondorengatik. Akordio horren arabera, bidearen jabea Udala da. Lesakako Laminazioak bidearen aldean eraikinak gabeko eremu libreak utzi zituen.

Hirigintzako Berako Udal Planak ere kontuan hartu zuen bide honen trazaketa industrialdea eta auzoa bereizteko eta honen arauera planifikatzeko.

2007an lurren jabe berriak zoru birpartzelatu egin zuen eta horretarako bide trukaketa bat eskaini zion Udalari. Eta orain auzorako bidea poligonoaren erditik, pabiloien artean aurreikusten da. Hau da, nahitaez egin behar zuten pabiloien arteko kale batetik proposatzen da orain auzorako sarbidea.

Aldaketa honekin Hirigintzako Berako Udal Plana ere aldatuko dutela suposatzen dute, eta horrela, azalera gehiago lortuko dela eraikitzeko baimena izango duen zoruaren. Bi-

de aldaketa hau Zalain auzoko bizilagunei iritzia eskatu gabe egin zen. Egungo egoerak Zalain auzoa industrialdearekiko babes eremurik gabe uzten du, eta industrialdeko eraikinak auzoko etxebizitzetatik sobera hurbil egitea bideratzen du. Kontuan hartu behar da Zalaingo auzoa, bere kokapenagatik, nahiko zigortua dagoela industrializazioaren ondorioekin. Industria poligonoez inguratua dago, errepide zaharrez eta saihesbidez.

Gai hau Udal Batzarraren aztertua izan da din eskaera bat formalizatu genduen Udalaren irailaren 1ean, eta oraindik ez dugu erantzunik jaso. Uste dugu oraindik garaiz gaude la denontzako onuragarria izango den irtenbide bat aurkitzeko.

Zalain auzoko bizilagun batzuk

Goizuetako labaderoa

GOIZUETA 1900, MENDEAREN HASIERA

Latza izan zen goizuetarontzat pasa berriak XIX. mendea. Independentziako Gerra, hiru gerrate karlista eta matxinada eta miseria franko nozitu baitzuten berta-bertatik. Monje, bizkonde, markes, olajaun eta maiorazkoen garaia pasaxea zen. Olak itxi, etxeak eta lurrak utzi, diru mordoak hartu eta Donostia eta Madril aldera abiatuak baitziren. Ollingo minak eta herriko hiru errota nekez irauten zuten be-

tiko lanean, eta gazteak Ameriketara begira jarriak zeuden.

Baina, mende berriarekin, Goizueta berriarekin, Goizueta berri atzera ematen hasi da, eta indartsu gainera, batez ere, argindar zentralen mugimendu berriarekin. Eta honek bestelako inbertsoreen eragin nabaria ekarriko zuen herrira: Ubarretxena, Sociedad Vasco Belga, Donostia-ko Tranbia Konpainia, Hispano Suiza, Cementos Rezola, Errenteriko Papelera...

Donostira argindarra bidaltzeko zentralak eta kanalak, edo Hernanitik Goizuetaraino kamio berria egiten ari ziren 1887 urterako. Ura etxe-eta ekartzeko tuberia berria paratzen 1893an. Telefonoa bazen 1896an. Goizuetako Sociedad de Molinosen eskutik argindarra iritsi zen etxe-eta 1904an.

Donostia handitzen ari zen erruz, eta Goizuetako ikatz, arkume, artile, zekor eta arraultzek harako bidea hartu zuten kamio eta auto berriekin. Hala ere, langileak –neskame, igeltsero, mandazai, ikazkin, nekazari edo morroi– lehengo kondizio gogorretan segitzen zuten lanean, diru haundirik ikusi gabe, eta zorraz ezin ordainduz merkatari aberats berriei. Beste batzuk, kontrabandoan edo tratolari, sosa aisaxeago ateratzeko bidea izan zuten. Baina, orduko edozein langileen ametsa, argindarren zentralak eta kanalak zaintzeko lana izan zen, ordaintzen zuten jornal ona eta seguruagatik.

Osasun prebentzio neurriak ere garrantzi

handia hartu zuen garai hartan. Maiz, kolera edo tifus gaitzak jota hil egiten baitzen jendea. Udalak osasuna eta garbitasuna hobetu nahian labaderoak egin zituen, eta etxeak ur garbiz hornitu, eta ur zikinak bideratzeko neurriak hartu. Gorreneko minazulo iturritik hartu eta ura ekarri zuen etxe-eta 1896an. Ur zikinaren isurbidea ere, Txumekatik hasi eta Errekaundiraino, 1915ean egin zuen.

GOIZUETAKO LABADEROA

Goizuetako Udalak 1904 urtean Zibolako nagusiari, *Bizconde del Cerro* jaunari, Zubimusu etxea erosi zion 1750 pezetatik, behean labaderoa, aurreneko pisuan nesken eskola eta goian maisu-maistren etxebizitza egiteko. Etxea lau paretetan zegoen, teilatu eta barrenak erorita. Elkarri erantsiak dauden Marijoangonea eta Zubimusu (labaderoa) etxeak XVI. mendeko eraikin interesgarriak dira, orduko estiloan gorde dituzten harrizko leiho eta ate ederretatik bakar barrik. Zubimusuaren atzekaldean, berriz, garai bateko *baskula* edo *mataderoa* ikus daitezke, umetako bizitzan nola ikusten genuen pisatu ondoreko abereen saihestezineko heriotza oroituz.

Goikoiturriko errekan presatxoa egin eta, 1908an ekarri zuten ura, Zubiaundian barrera, burnizko tuberia batean. Labaderoa, barrenez barren 16 x 5,5 metrokoa da, eta askak 3 x 12 metro ditu. Pentsa

● IRAKURLEAK MINTZO ●

labadero honek garai hartako emakumeei nolako aurrerapena eta erosotasuna ekarriko zien! Ordura arte erreka bazter batean edo urrutiko labadero tiki haietan garbitu behar izaten baituzten arropa, eta ez hone-lako toki eroso eta estalian. Bai, zerbitzu ederra eman dio herriari 1980 aldera arte. Ordurako garbigailu modernoak hasiak baitziren. Hala ere, batek edo bestek segitu zuen hona etortzen, Martzelina, Maria Baxtera eta... Errematea izan zuen arte, Goikoiturri inguruan pista egitekoan ur hodiak urratu eta urik gabe gelditzean. Geroztik, hogei bat urtez edo, biltegi gisa erabili zen, 2007an auzolanez berriro martxan paratu zen arte, orain ikusten duzun modura.

Honen aurretik, 1890ean Zibolan eta Goikoiturri eraikitako labadero kokorak erabiltzen ziren arropa garbitzeko. Zibolako 1947ko uholdeak eraman zuen oso osorik, eta Goikoiturrikoa oraindik ikus daiteke. Baina, herrian ez ezik, baserri auzoetan ere bazituzten arropa garbitzeko lekuak: Akolakoa, Alkaxarrekoa...

**Jose Javier
Etxeberria
Goizueta**

Berako mozio eta emendakinak

Irailaren 22an ez-ohiko osoko bilkuran izandako eztabaida eta ondoren komunikabideetan azaldu den informazio ez osoa ikusiz, osoko bilkura hortan gertatutakoa azaldu asmoz idatzi hau

luzatzen dut.

Ez-ohiko osoko bilkura deitu nuen ostegunetan EAE-ANV alderdiaren ilegalizazioa salatzea zelarrik gai ordeneko puntu bakarra. Auzitegi Gorenaren erabaki hau oso larria izan da eta ez-ohiko bilkura bat deitzeko nahiko eta sobera arrazoi. Oposizioko taldeek osoko bilkura unilateralki deitu izana eta inori kontsultatu gabe egitea egotzi ziguten eta emendakina aurkeztu zuten as-teburuan gertatutako bertze ekintzak ere sartuz eta mozioak denon artean adostu eta aurkeztu behar direla erranez. Kasu honetan gu gara adierazienak eta alderdi bakoitzak aukera du ez-ohiko osoko bilkura deitzeko guk kasu hontan egin dugun bezala. Aralarri erran, denak batean lan egiteko asmo hori bere buruari ere aplikatzeko. Orsaren plantaren alegazioetan adibidez, Berako Udalaren izenean alegazioak aurkeztu ditugun arren, beraiek beren aldetik ere aurkeztu dituztelako, eskubide guztiarekin noski.

Beran minorian gaude alkatetzan eta mozioak aurrera ateratzerakoan arazoak izan ditugu. Oposizioko taldeek emendakina aurkezten dute gure mozioaren aurka, kasu honetan bezala, eta hau bozkatzen genuen lehenengo. Emendakina aitzinera ateraz gero, gure mozioa ez zen bozkatu ere egiten. Guri nahiko aldrebasa iruditzen zitzaigun guk deitua izaniko osoko bilkura, gure mozioa ez bozkatu ezta tratzea ere. Azkeneko osoko bilkura honetan lehenengo mozioa bozkatzea erabaki dugu eta ondo-

ren emendakina, moduhonetan biak tratatzen dira eta osoko bilkurako aktan azaltzen. Gure harri-durarako bertze taldeak, batik bat Aralar, prozedura honen kontra agertu ziren. Baina zer da hau? Alde batetik gure eskubideak errespetatuko dituztela erraten eta bertzetik gure mozioa estali eta bozkatzeko eskubidea kendu nahian? Guk planteatu dugun moduan bai mozio eta bai emendakina solasten dira, bozkatu eta biak agertzen dira aktan. Benetan ez dugu ulertzen nola egon daitezkeen prozedura honen aurka. Alde batetik, ilegalizatuak, baina bertzetik, herrian bertan ere isilarazi nahi gaituzte, bakoitzak bere ondorioak atera ditzala!

**Josu Iratzoki
Berako alkatea
(EAE-ANV)**

Berako Aralarren oharra

Berako Aralarrek Josu Iratzoki alkatearen azkeneko oharren aitzinera honakoak argitu nahi ditu:

1. Gezurra dela ANV bere ilegalizazioaz aurkeztutako mozioa azken ez-ohiko batzarrean eztabaidatu ez zenik. Eztabaidatu ez ezik, bozkatu ere egin zen. Eta hori edonork ikus dezake osoko bilkura horretako aktan. Gainerako taldeek eta idazkariak berak ohararazi zioten alkateari, mozio bat aurkezten denetan gainerako taldeek zitelegitutasun eta eskubide osoa dugula zuzenketak aurkezteko, eta berez, zu-

zenketa hori bozkatu behar dela lehenbizi. Zuzenketa onartzen bada, jatorrizko mozioa erori egiten da. Hori da logikak agintzen duena, eta instituzio guztietan egiten dena, Berako Udalean izan ezik. Berako alkateak, ordea, bere interpretazioa ezarri zuen osoko bilkuran, eta lehenik euren aurkeztutako mozioa bozkatu zen, eta ondotik bozkatu zen zuzenketa. Gure zuzenketa bertze mozio batean bihurtu zuen, gure borondatearen eta iritziaren kontra. Berak ongi dioen bezala, gutiengo babesarekin agintzen ari da alkatea. Abilezia gehiago behar luke gainerakoekin akordioetara iristeko, eta batesa bilatzeko.

2. Aski ongi daki Josu Irazokik, zein bere taldekideek, Aralarrek irmo salatzen dituela alderdien legea eta ilegalizazioak. Memoria guti erakusten dute aitzineko legegintzaldian euren presentzia ziurtatzeko etengabe bideak jarri zituela Aralarrek.

3. Aralarrek behin eta berriz erran dio alkateari eduki politikoko gaietan gure zuzenketa aurkeztuko dugula, betiko moduan osoko bilkura bereziak gainerako zinegotziak kontuan hartu gabe deitzen baditu, eta ez badiu inolako saiakerarik egiten testuak adosteko. Horrek ageri-agerian uzten du negoziatzeorako eta adostasunerako ez dela inolako borondatearik, ez alkateak, ez bere taldeak ere.

4. Orsaren gaiarekin egiten digun kritikaren harira, gogorarazi behar diogu alkateari, abuztuan Lesakako Udaletxean auzotarrekin bi udaletako

ordezkariek egindako bilera ahobatez erabaki zela udalez ez ezik, ahalik eta alegazio gehien aurkezteko saiakera egiten genuela, eragile ezberdinei aurkeztera animatuz, auzotarrek, udal taldeek, zein norbanakoez. Eta horien artean dago Aralarrek alderdi bezala aurkeztutakoa. Eta Berako Udalak alegazioak aurkeztu badu, bertzeren artean, alkateari hori egiteko behin eta berriz insistitu izan diogulako izan dela. Alegazioak aurkeztearen funtsa ez al da Orsaren asfalto lantegia Alkaiagan ez ezartzea? Aralarrek helburu hori bilatzen du, eta bere esku dagoen guztia egiten du hori horrela izan dadin, baita alegazioak aurkeztuz, behar izanez gero.

5. Zalaingo industrialdeko lanen harira, ezin dugu gure harridura ezkutatu. Komunikabideen bidez jakin dugu txosten horien edukia, eta lerro hauek idazterakoan jaso ditugu txosten horiek. Hori da alkateak gainerako zinegotzi eta taldeekiko duen begirunea, eta informazioaren gardentasuna.

Berako Aralar

OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefona biduali behar dira. **Bertze-la, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapak** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

HEDABIDEAK

Aurreikusitako laguntzak banatzea exijitu diote tokiko hedabideek Gobernuari


Euskarazko hedabideentzako urteroko laguntza osorik blokeatu du Nafarroako Gobernuak

ttipi-ttapa

Euskararen Legea in-darreen sartu zenetik 22 urte beteko direnean, eta Nafarroako Gobernuak Euskarabidea sortu duen urte berean, Foru Administrazioak inolako laguntzarik gabe utziko ditu euren ohiko jardunean euskara erabiltzen duten Nafarroako hedabideak. Horixe salatu zuten urriaren 9an Nafarroako euskarazko hedabideen ordezkariak eta haietako aunitz biltzen dituen Nafarroako Topaguneak Iruñean egindako agerraldian.

Aurrekontu murrizketaren aitzakian, Gobernuak ez du argitaratu ere egin euskarazko hedabideei diruz laguntzeko deialdia, eta horrek kinka larrian jarri du hedabideen bideragarritasun ekonomikoa.

Euskararen Legea ere urratzen duela leporatu diote Gobernuari. Aipatu lege horren hirugarren Tituluaren arabera, Administrazio Publikoa behartua dago «hedabideetan euskararen presentzia sustatzera», eta horretarako, «laguntza ekonomiko eta materiala» bideratu behar du hedabideek euskara erabil dezaten



Datuetan agerienez, aurrekontu osotik euskara hedabideetan sustatzeko bideratzen den diru partidak beheiti egin du 1999az gozotik.

ohiko jardunean eta progresiboki. Horren harira, zera gaineratu dute hedabideetako ordezkariak: «hitz horietan ere inplizituki onartzen denez, euskarazko hedabideek ekarpen garrantzitsua egiten diote Nafarroako Gobernuari: euskararen normalizazio prozesuan funtsezko lana egiteaz gain, gizartea trinkotzeko eta auzoak benetako komunitate bihurtzeko tresna ezin hobea dira hedabideek».

HEDABIDEEN KASUAN

%100EKO MURRIZKETA

2008ko aurrekontuak onartzerakoan, Euska-

rabideak –Nafarroan euskara kudeatzeko sortu zen erakundeak–, 310.000 euro iragarri zituen helburu horretarako, baina, badirudi laguntza hori bertan behera geldituko dela. Hedabideek adierazi dutenez, diru sarrera horren arabera antolatua zuten urteko aurrekontua, eta «hartu gabe geldituz gero, defizita ekartzeaz gain, euskarazko hedabide aunitzen etorkizuna arriskuan jarriko da».

Egoera ekonomikoa ona ez dela-eta, erabaki du Nafarroako Gobernuak aurrekontuan murrizketa egitea. Baina Euskarabidearen kasu-

an murrizketa %17koa izan da, eta hedabideena %100ekoa. Aitzitik, Gobernuaren bertze arlo eta departamentuetan murrizketa %4koa izan da.

Egoera, beraz, arras kezagarria da, eta Nafarroako tokiko hedabideek eskaera zehatza luzatu diote Gobernuari: «lehenbailehen egin dezala hedabideetan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntza deialdia eta bana dezala berez hedabideei dagokigun 310.000 euroko diru-poltsa hori».

DATU ADIERAZGARRIAK

Goiko grafikoa dirula-

guntzen azken urteotako bilakaera ageri da. Argi ikusten denez, euskara hedabideetan sustatzeari begirako diru poltsa ez da ia hazi 1999tik 2007ra bitartean. Gainera, KPIak urte horietan izandako eragina kontuan hartuz gero, laguntza murriztu egin da: poltsa osoaren zenbatekoa %16 murriztu da prezioen bilakaeraren ondorioz. Eta murrizketa horren barruan, euskarazko aldiriek jaso duten zigorrik gogorrena; 1999tik 2007ra %62ko galera izan du jaso duten laguntzaren balioak.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

carrho
gostalegi dantxepa

plaza batzokora 25 boko
30700 barzainakam) t548-63 0899
www.sarobe.net

SOULE

hileta onia
dantxepa eta dantxepa
ARIZUM

TAILERRAK
ALMANDOZ

- Meknika
- Karamzeria
- Ibilgailuak
- Fikotritatza
- Kermirik
- Furooneta 4x4

Faxa: 648 626 171 • Mug: 678 892 032
Berrueta, 16 • Aitzolegi Ind. • LESAKA

BERA

Zalain auzoan egiten ari diren industrialde berriak auzotarren kezka eragin du

Alkateak promotoreak egindako eskaerari buruz hitz egin du

ttipi-ttapa

Zalaingo auzotarrak arduratuak daude, 1990az geroztik auzoan industrialdetik bereizten duen bidea eta auzorako sarbidea izan dena desagertuko dela ikusten baitute. Kezkatuak, sinadura bilketa ere egin dute eta 31 firmak Herriko Etxean aurkeztu dituzte. Gaia aztertzeko eskaera egin zuten irailean Udalean baina erantzunaren zain segitzen dute.

90. HAMARKADAN ERAIKIA

1989an auzotarrek ordura arte erabiltzen zuten gurdi bidea asfaltatzeko eskatu zuten. Baina orduko Laminaciones de Lesaka enpresak gurdi bidearen bi aldeak aprobetxatu eta pabiloi luzeago bat egiteko, auzokoentzako bertze bide bat egitea proposatu zion Udalarari. Honek onartu egin zuten eta 1990az geroztik hortik ibili dira auzokoak. Gainera, industrialdetik «*babesteko*» bide bat bezala hartu izan dute. Enpresak bide berria egiteko lanak bere gain hartu zituen, eta 1991n bide berria—oraingoa—eta gurdi bidearen lur eremuaren artean permuta

egiteko nahia luzatu zion Udalarari. 14 urte beranduago, 2005ean ere ohar berdina bidali zion enpresak Udalarari, permuta tramitzatzeko nahia zuela, alegia. Udalak plenoan enpresaren proposamena onartu zuten, baina notarioaren aitzinean ez zuten tramitatu permuta.

2007ko maiatzeko udal aktan agerienez, promotoreak permuta bertan behera uzteko eskaera egin zuten, eta Udalak ere horren gaineko interesik ez duela adieraziz, permutaren kontua bertan behera uztea adostu zuten.

Aurtengo uztailean hasi zituzten C12 industrialdea deiturikoa urbanizatzeko lanak. Baina honek, 90. hamarkadaz geroztik erabili den bidea desagertuko dela ikusten dute eta industrialdea etxebizitzetatik «*hurbilegi*» gel-dituko dela. Guztiak kezka eragin du eta arazoari irtenbidea emateko eskatzen diote Udalarari.

ALKATEAREN OHARRA

Josu Iratzoki alkateak, bere aldetik, gaiari buruz zera adierazi du prentsan: «*industrialdearen promotoreek eskaera bat egin*



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Lurraren Eguna urriaren 26an

Gure Txokoa Elkarteak antolatuta, Lurraren Eguna egiten da urriaren 26an. Halere, bezperan, ohi bezala, Lizuniagako Igoera egiten da 17:00etatik aitzinera eta 18:30ean Barazkopil Lehiaketa. Lurraren Egunean goizetik nabaritu-ko da mugimendua. 10:00etan txalaparta doinuak somatuko dira, eta orduan zabalduko da eskulaginleen azoka eta erakusketa ere; barazki erakusketa ere bai. 10:30ean *Beratarrek* argazki erakusketa irekiko da Labiaga ikastolan. 11:00etan gasna eta sagardo lehiaketa hasiko da. 12:00etan Berako Banda eta Musika Eskolako trikitilari eta akordeoilariak herrian barna ibiliko dira bazter-rrak alaitzen. 13:00etan Legazpiko Korosti Dantza Taldekoen txanda izanen da eta herriko txistulariak ere herrian ibiliko dira. 16:00ak aldera Altzate karrikan haurrentzako ikuskizuna izanen da Hipo eta Tomax pailazoekin. 17:30ean sagardo eta gasna lehiaketaren sari banaketa egiten da. Ondotik irabazleak enkan-tean aterako dira eta Erika Lagoma eta Julen Zelaia bertsoariak ere euren saioa eskainiko dute. Azkenik, 18:30ean Imuntzo eta Belokirekin dantzaldia.

dute Hirigintza Planean eraikitzeko onartutako alineazioan aldaketa egin dadin. Baina Udalak ez du onztat eman, eta erabakia hartu aitzinetik txosten tekniko eta juridikoen zain dago. Aitzineratu dezakegu txostenak kontrakoak direla, industrialdea eta auzotarren artean babesgune bat egon behar duelako».

Eztabaidak Udalean

Azken ez-ohiko batzarrean aurkeztutako mozio eta emendakinen inguruan izandako eztabaidak tarteko, azalpenak eman ditu alkateak. Bere hitzetan, ez-ohiko bilkura dei-

tu zutenean EAE-ANV alderdiaren legez kanporatzea salatzea zen eguneko puntu bakarra. Oposizioko taldeek osoko bilkura unilateralki deitu izana eta inori kontsultatu gabe egitea egotzi zieten ANVkoei eta emendakina aurkeztu zuten, bertzeak bertze, mozioak denenean artean adostu eta aurkeztu behar direla erranez.

Alkatetzan guttiengoan egonik mozioak aitzinera ateratzeko arazoak izan dituztela dio alkateak. «*Oposizioko taldeek emendakina aurkezten dute gure mozioaren aurka, eta hau bozkatzen da lehenengo*». Emendaki-

na aitzinera aterata, «*ANVren mozioa ez da bozkatu ere egiten*». «*Nahiko aldrebesa da osoko bilkura ANV deitu eta gure mozioa ez bozkatu, ez tratatzea*». Hortaz erabaki zuten azken batzarrean euren mozioa lehenik eta gero emendakina bozkatzea, biak tratatu eta aktan azaltzeko.

Honierantzunez, Aralarrek oharra kaleratu du: «*gezurra da ANV bere ilegalizazioaz aurkeztutako mozioa azken ez-ohiko batzarrean eztabaidatu ez zenik. Eztabaidatu ez ezik, bozkatu ere egin zen. Hori edonork ikus dezake osoko bilkura horretako aktan*».



LESAKA

FLASH

703 bisitari izan ditu udako hilabete eta erdian turismo bulegoak

Laster Burdin Zentroarekin batera eskainiko da zerbitzua konbentuan

Aitor AROTZENA

Udal turismo bulegoa udan irekia egon den hilabete eta erdi eskasean, abuztuaren 5etik irailaren 15era, 703 bisitari pasatu dira bertatik informazio eske. Aipatzekoa da asteartetik larunbatera, goiz-arratsalde eta igande eta besta egunetan goizez ireki dela bulegoa.

Turisten jatorriari dagokionez, gehienak Nafarroa bertakoak ziren, baina baita Gipuzkoa, Bartzelona, Madril, Araba eta Valentziatik etorritakoak ere. Estatu kanpotik etorritakoen artean frantsesak, italiarrak, ingelesak eta poloniarrek izan dira bisitari gehienak.

Turismo bulegoa uda sasoiaren lehenbiziko aldiz eskaini denez, ez da goela konparaketa egiteko daturik aipatu digu Belen Mutuberria kultura teknikariak, baina orokorrean turista guttiago ibili dela somatu da. Eskatutako informazioari dagokionez, Lesaka eta inguruko baliabideak, jattetxeak eta ostatu hartzeko lekuak galdetu dituzte. Bisita gidatuei dagokienez, guzira 7 talde eta kasik 250 bisitari izan dira zerbitzu ho-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Behin eta berriz erabiltzeko erosketa-poltsa banatu du Lesakako Zerbitzuen Elkarteak

Lesakako Zerbitzuen Elkarteak ingurumena errespetatzeko helburuarekin, behin eta berriz erabiltzen ahal den erosketa-poltsa banatu du herrian. Zerbitzuen Elkarteak eta Herriko Etxeak erdibana ordaindu dituzte 1.025 poltsak egitea eta etxetara banatzea kosta diren 2.900 euroak. Javier Oronoz elkarteko idazkariak urriaren 3an egindako aurkezpenean aipatu zuenez, bezero aunitzek ingurumenarekin sentsibilizazio berezia daukate eta aunitz bere poltsa edo kapazoarekin joaten dira dendetara. Plastikokoaren erabilera murrizteko helburua dute merkatariak kanpaina honekin.

ri aprobetxatu dutenak, guziak Nafarroa bertakoak, Iruña eta Erribera aldekoak.

Aurten Herriko Etxeko beheitiko solairuan egon da Turismo bulegoa, baina laster zerbitzu hau Burdin Zentroarekin batera konbentuan ezarriko da.

Zabaleta dorrea moldatzen

Turismoarekin lotuta, uda honetan, herriko bi dorretxe famatuetara, Mindurinea eta Zabaletara, joateko norabideak zehazten dituzten seinaleak paratu dira Bereauko zubian eta bertze bidegu-

rutzetan. Zabaleta dorreari edo Kaxernari dagokionez, Enrique Otazu jabea moldaketa eta garbiketa lanak egiten ari da, Vianako Printzea erakundearen laguntzaz. Lehenik, teilatua eta fatxada moldatzeko asmoa du eta gero barreneko aldea, bigarren

Zahar Etxean ur beroaren depositoa egiteko laguntza

Hirugarren adinekoei zuzendutako zentroetan inbertsioak egiteko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko Nafarroako udalei zuzendutako dirulaguntza deialdia ebatzi du Nafarroako Gobernuak. Lesakako Udalak 5.959,85 euroko dirulaguntza jasoko du Andre Mari Zahar Etxean ur beroaren depositoa egiteko. Lan honen aurrekontua 9.933,08 eurokoa dela kontuan hartuz, %60a ordainduko du Nafarroako Gobernuak.

Urrezko Ezteiak

Azaroaren 7an egingen zaie Urrezko Ezteiak bete dituzten senar-emazte omenaldia, Nafarroako Kutxak eta jubilatuei elkartek antolatua. Aurten Etxalarko Bentetan izanen dute bazkaria eta izen ematea zabalik da.

Oreretako Haur Abesbatza

Urriaren 25ean Oreretako Haur Abesbatzak kontzertua eskainiko du San Martin Elizan, 20:15ko mezaren ondotik. Lesakako Abesbatzak antolatua du emanaldia.

etxebizitza bezala erabili asmoz.

Informazio eta Turismo Bulegoa jartzeko, garai batean botika bezala erabiltzen zen gela eskaini zion Udalari, baina Herriko Etxeari hagitx garesti iruditu omen zitzaion Otazuren eskaintza.

ttipi
ttapa
☎ (0034) 948 635458

BOZZ-AID
TAVARKOMENIA
www.ttipi-ttapa.com

XATURETXEA
ZABALETA
JATETXEA
T: 948 837 280 - LESAKA

IRU BIDE
LITURGIA - ASALTO
BIBLIOTHECA - LESAKA
Tel: 948 637 127

MERTZERIA
Leño
LENTZERIA
Tel: 948 637 514
Etxe Rioza, 10 - LESAKA

ETXALAR

Igande honetan, urriak 19, egingen da Usategietako Igandea

Txistu kontzertua eta bertso-afaria, bertzeak bertze, aurtengo Kultur Egunetan

Joseba eta Nerea

Urteroko ohitura segituz, urriko hirugarren aste hondarra berezia izanen da Etxalarren. Aspaldiko besta handiari segida emanez, Usategietako Igandea ospatuko da urriaren 19an, gazte nahiz helduentzako hainbat ekitaldi-ekin, bai larunbatean, bai igandean.

IV. PATATA TORTILLA TXAPELKETA

Larunbatean, urriak 18, 18:30ean aitzineko urteetan hainbertzeko arrakasta izan duen patata tortilla txapelketa egingen da plazan, aurtun laugarren aldiz. Parte-hartzaileek 3 laguneko taldeetan eman beharko dute izena eta taldea bera arduratuko da osagaiak eta behar diren tresnak (sua, trapa, platerak...) frontoira eramateaz eta ondotik biltzeaz. Izena emateko epea ortzegun

honetan, urriak 16, akabatuko da eta Elutsa, Herriko edo Anttonion egin beharko da. Beti bezala, 2 maila bereziko dira txapelketan, 16 urtetik beheikoena eta 17 urtetik goitikoena. Hainbat sari emanen dira; tortillarik onenari, txarrenari, originalenari... Txapelketako sari-banaketaren ondotik, Zupirre fanfarreak plaza bazterrak alaituko ditu. Giroak eta umore onak ez dute hutsik egingen.

USATEGIETAKO IGANDE BEZPERAKO AFARIA

Aitzineko urteetan afaria frontoian bertan egin bada ere, aurtun Anttonion egingen dute gazteek afaria. Izen ematea urriaren 17a baino lehen egin beharko da Elutsan, Herriko edo Anttonion bertan.

USATEGIETAKO IGANDEA

Eguraldiak laguntzen badu, denbora bateko



ARGAZKIA: ARANTXA DANBORIENA

Patata Tortilla Lehiaketaren laugarren edizioa izanen da aurtengoa. Ikusten denez, tortillaren itxura zaintzeaz gain, eurena ere zaintzen dute sukaldariek.

ohitura mantenduz, goizean goizetik Iharmendiko gainetan hasiko da eguna. Garai batean han izaten zen besta, eta oraindik ere jende aunitz hurbiltzen da Usategietara, harat-honatean ibili eta zorte pixka bat izanez gero, usak saretan nola harrapatzen dituzten ikustera. Arratsaldean, herri-jauntsiko da besta eta 17:00etatik aitzinera kale animazioa izanen da haurrentzat. Detraka taldearen eskutik, Txikiglub emankizuna ikus-terko aukera izanen da. Talde hau plazan eta inguruko karrketan ibiliko da hankaluze eta bertzelako panpinekin, musikaz lagundurik. Ondotik, dantzaldia izanen da Joselu Anaiak taldea-

rekin. Urtero bezala, ilunabarreko 8etan Altxata Kultur Elkarteak 12 usoren zozketa egingen du. Lerro hauen bidez, guztiok animatzen zaituztegu Usategietako Igandera etortzera.

2008ko Kultur Egunak

Urtero bezala, Euskara Batzodeak urri bukerarako udazkeneko Kultur Egunak antolatu ditu. Urriaren 24an, ortzirala, txistu kontzertu pedagogikoa eskainiko du Irungo Txistulari bandak eta, bertzeak bertze, ipuin bat kontatuko dute txistuaren laguntzaz. Ekitaldia 15:00etan izanen da Kultur Etxean, eta sarrera irekia izanen da, haur nahiz helduentzako. Hurrengo

ekitaldia urriaren 25ean izanen da, larunbata. Azkeneko urteetan bezala, bertso-desafio afaria egingen da Herriko ostatuan, Bortziriterako Bertso eskolak Orioko bertso eskolakoen kontra lehiatuko dira. Gai-jartzailea Joseba Olagarai izanen da. Afarira joan ahal izateko txartelak Herriko Ostatuan edota Euskara Batzordeko kideren batengana joz eskuratzen ahaliko dira. Eta Kultur Egunekin akabatzeko, urriaren 30ean hitzaldia izanen da Iñaki Egaña historialariaren eskutik. Gerra Zibil ondoko urteetan Bidasoaldean sufritutako errepresioaz arituko da. Hitzaldia 20:00etan izanen da Kultur Etxean.

Mikkala
Bidasoa 41, Bera
Tel. 948 630 360

ZJ
Zalain
jatetxea - hostala

14 logela bainu eta TBrekin

Zalain auzoa z/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

PIKABEA
harategia janariak

948 63 09 67

IGANTZI

Guttiago gelditzen da 2009ko San Migel bestetarako

Giro eta eguraldi ederrean joan dira bestak

ttipi-ttapa

Aitzineko asteburuan eta egunean ere hainbat ekitaldi izan arren, irailaren 27an botatako txupinazoarekin eman zitzaizen hasiera ofiziala San Migel bestei. Aurten goan, Patxi Irazoki eta Oskar Telletxea kirolariek eduki zuten bestak hasteko ohore hori.

Arratsaldean, herri kirolerako bi txapelketa ofizial eta herritarren arteko desafio ikusgarria egin ziren. Batetik, Euskal Herriko lasto altxatze txapelketako garaipena herrian gelditu zen, Iñaki Bereaurrentzat izan zen. Eta bertetik, koxkor biltzen lehia ikusgarria eskaini zuten Fernando Etxegarai beratarrak eta Patxi Irazokik. Baina azkenean, Etxegarai nagusitu zen. Ondotik, herritarrek egin zuten desafioa. Arpanarekin Iñaki Portu eta Julen Txoperena aritu ziren, Aurkari, berriz, motozerrarekin aritu zen Xabi Almadoz izan zuten. Bitarte horretan, lasto altxatzeak herrian se-



Patxi eta Oskarrek botatako txupinazoak eman zien hasiera bertz eguneko bestei. Hortik aitzinera, gisa guztietako ekitaldiekin gozatu zuen jendeak.

gida izanen duela erakutsi zuen Arkaitz Retegik.

Igandean Euskal Herriko errektadoreen ikuskizunak piztu zuen interes handiena. Astelehenean San Migel Egu-

na ospatu zuten, eta herriko dantzariak saio polita eskaini zuten. Bertso pilotarekin ere gozatu zuten ikusleek. Asteartean amaitu ziren bestak, eta orduko ekitaldi nagusie-

na bertso bazkaria izan zen. Gainerakoan, pilota partidak, dantzaldiak, haurrentzako jolasak... Denetariko ekitaldiekin gozatzeko modua izan zen bestetan.

FLASH

Konposta egiteko kanpaina martxan da Bortzirietan

Etxean konposta egiteko kanpaina abiatu du Bortzirietako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateak. Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako herritarrek zabor organikotik abiatuz konposta egitera bultzatzea da ekimenaren helburua, eta horretarako hainbat konpost makina banatuko dira. Konpost makinarekin proba egin nahi dutenek Herriko Etxeekin jarri beharko dute harremanetan, urriaren 31 baino lehen. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu telefono hauetara: 948 635254 edo 670 522975.

Bortzirietako Haur eta Gazteen Ipuin Lehiaketa abian

Iaz bezala, Berako Udal Liburutegiak eta Kultur Batzordeak Bortzirietako Haur eta Gaztetxoen Ipuin Lehiaketa antolatu dute. Gaia librea izanen da baina hiru mailatan banatu dute, adinaren arabera. A Maila Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoentzat; B Maila Lehen Hezkuntzako 5 eta 6. mailakoentzat; C Maila DBHko 1go eta 2. mailakoentzat. Ipuinak 1-4 orrialdekoak izanen dira. Ipuinaz gain, gutun-azal batean ondoko datuok sartu beharko dira: izen-abizenak, maila (A, B edo C), adina, ikastetxea, gela eta harremanetarako telefonoa. Ipuinak jasotzeko azken eguna azaroaren 28a izanen da Berako liburutegian edo Kultur Etxean. Sari banaketa, berriz, abenduaren 19an, egingen da Liburutegian.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Didasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

948 631 218

Kanitonberri 1, BERA

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

KATEA-BIKE

ARANTZA

FLASH

Kultur Egunak urriaren 31tik azaroaren 2ra izanen dira

Azaroaren 1erako Baserritarren Eguna antolatu du Ekaitza Elkarteak

Nerea ALTZURI

Udazkena etorri bezala, urtaro honetako kulturaldiak indar berezia hartzen du. Euskara Batzordea maizago biltzen da tenore honetan ekitaldiak josteko. Ekaitza Elkarteak, Herriko Etxea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Gazte Asanblada eta Guraso Elkarteak elkarlanean egitaraua aitzinera eramateko lanean ari dira. Aurtengoan ere urria ezin hobeki akautuko da, eta gisa berean, azaroko lehenbiziko asteburua ekitaldiz bete da. Osa-gairik dastagarriena, bertzeak alde batera utzi gabe, Santu Guzien Egunean egiten den Baserritarren Eguna da. Ekaitza Elkarteak urte saila daramazki antolatu, 13 guztira.

Goizeko 10etatik frontoia azoka bilakatu da. Baserritarren produktuen erakusketaz gainera, herritarren tresna, eskulan,azienda eta abar izaten dira. Baina



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurten ere herritarrek etxeko produktu,azienda eta tresnarik onenak aterako dituzte Baserritarren Egunean.

ez da hori izanen Kultur Egunean gozatzeko aukera eskainiko duen ekitaldi bakarra. Guztia zehaztu gabe baldin badago ere, aitzineratzeko moduan gaude.

Ortzirala, urriak 31

- 20:00etan euskal zerrien arrazari buruzko hitzaldia Ekaitza Elkarteak.
- Gauean mus txapelketa.

Larunbata, azaroak 1

- 10:00etatik aitzinera Baserritarren Eguneako azoka frontoian.
- 17:00etan haurrentzako tailerrak.
- Gauean bertso afaria.

Igandea, azaroak 2

- Lerro hauek idazterakoan zehaztua ez zegoen ekitaldiren bat izanen da goizean.
- 17:00etan haurrentzako antzerkia.

Hurrengo alean xehetasun guztiak zehatz emanen dizkizuegu.

Folk Musika larunbatean

Nafarroako Gobernuak antolatzen duen Udazkeneko Biraren barne, musika emanaldia izanen da larunbat honetan, hilak 18, frontoian. Iddwac izeneko folk musika taldeak kontzertua eskainiko du 20:00etan.

Su egur lotea eskatzeko

Udalak ohar bidez jakinarazi duenez, su egur lotea eskatzeko epea zabalik dago. Etxe baikoitzak lote bat eskatu ahal izanen du, 30 euroko prezioan. Interesatuak Herriko Etxera jo beharko dute urriaren 31 baino lehen.

Udazkenean ikastaroak

Berriz ere, astearte arratsaldero, iazko eskulan taldeak ikastaro izanen du. 17:30etik 19:30era aritzen dira eta Pui iruritarra dute irakaslea azken urteetan bezala. Adibide gisa, eskulan aunitz ekarri zizkien lehenbiziko egunean ikusteko, aurten zeri lotu gomendioak emanez. Gustura dira aurten ere emakumeak aurten ere hornidurarako nola erabilgarri diren elementu politak egiteko aukera dutelako.

AEROBIC ETA GIMNASIA

Iaz bezala, Pabloeneako Ana Larretxea monitoreak gidatuta, astelehen eta asteazkeneko gimnasia eta aerobic ikastaroak izaten dira eskolako gimnasioan. 18:30etik 20:30era gimnasia eta aerobic-eko ordu banako saioak izaten dira, hurren hurren.

Tel: 948 634 179
ARANTZA

ALBERGIA - IATETXEA

ZUBIONDO
Jatetxea
 sagardotegia jatetxea

 Alasta karrika
BERA NAFARROA

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

☛ Langile autonomoak	☛ Diru-laguntza ezberdinak
☛ Nekazariak eta mendi langileak	☛ Kontabilitateak
☛ Nominak eta Aseguro Sozialak	☛ IVA eta IRPF
☛ Lan-Kontratatutarako laguntzak	☛ Errenta aitortpenak
☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea	☛ Elbaritasun eta jubilazio espedienteak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxo: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 378 - Faxo: 948 133 713

SUNBILLA

'Arrutenea Etxea' izeneko esku pilota txapelketa jokatu da aurten lehenbizikoz

Migel Mari Latasak eta Antton Espelosinek antolatu dute

Jaione OTXANDORENA

Joan den urriaren 5an jokatu zen Arrutenea Etxea izeneko lehen esku pilota txapelketa. Txapelketa hau antolatzeko ideia Miguel Mari Latasarena izan zen eta horretarako Antton Espelosinen laguntza izan du.

Igande arratsaldearekin jokatu ziren lau pilota partidak Arrutenea Etxeak atzekaldean duen frontoietik. 17:00etan hasi eta buruz-buruko lau pilota partida ikusi ahal izan genituen. Honela gelditu ziren emaitzak: Enaitz Telletxea (Igantzi) 18, Pello Migelarena (Bera) 15; Julen Juankorena (Sunbilla) 18, Iker Espelosin (Sunbilla) 15; Ander Errandonea (Bera) 18,



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Pilotariak eta antolatzaileak txapelketa jokatu zen egunean.

Andoni Espelosin (Sunbilla) 13 eta Iñaki Azpiroz (Irurita) 18, David Albiasu (Narbarte) 17.

Pilotari guzietan beren sariak eman ondoren, luntxa izan zen berta-

ra hurbildu zen jende guztiarentzat.

Yoga, pilates eta eskulan ikastaroak

Ikasleak eskolara buel-

tatzearekin batera, hainbat ikastaro ere martxan jartzen dira gure herrietan. Aurten Sunbillan, yoga, pilates eta eskulan ikastaroak egiteko aukera

izanen da. Dagoeneko hiru ikastaroak hasiak baldin badira ere, antolakuntzatik jakinarazi digutenez, taldeak oraindik ere jende berria hartzeko irekiak daude.

Yoga edo pilates ikastaroari buruzko informazioa nahi duenak Izaskun Altzuriri erran diezaioke eta eskulan ikastaroaren berri izan edo izena emateko Edurne Urrozekin egon beharko da.

FUNKY IKASTAROA

Aipatu behar da funky ikastaroa egiteko proposamena ere luzatu dela herrian. Ikastaro honetan interesa duenak honako telefono zenbaki honetara deitu beharko du: 607 744199.

TOLDOS BAZTAN, S.L.

TOLDOAK: moskiterrak, persianak, moskiterrak, moskiterrak, moskiterrak
 MOSKITERAK-PERSIANAK: moskiterrak, moskiterrak, moskiterrak
 PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

TOLDO IA BERRIEN ESKAINTZA
 berriena, berriena, berriena, berriena, berriena, berriena, berriena, berriena
 Berriena, Berriena, Berriena, Berriena, Berriena, Berriena, Berriena, Berriena

bidaraz, 66 berriena • BERNA • Iruña eta Iruña • 948 631003

PERSIANAS TOLDOS BAZTAN

Elxeko Ardi Gazta

LIZUN
GAZTANDEGIA

Petxenekoborda - SUNBILLA - Tel: 948 450 862

ATM S.A.

ALXILIAK IIE
 TRANSFORMADOS
 METAICOG S.A.

Igantzi bantak
 948 63 74 11

- Tapa eta markekin eta tolestua 6 metro bitartean, natura eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta fijoak.
- Garraioak zintak eta mahaiak
- Mantenu rodilloak

ANTZUZELA S.L.

Tel: 948 631 317

HARRI NATURALA

Ahorratu eta Lantzen

Antzuzela S.L. Berriena, Berriena, Berriena, Berriena, Berriena, Berriena, Berriena, Berriena

ZINGARRAK ANDERAK OIAK

Iruña eta Iruña
 BERNA

LANA

591 langabaturekin, zertxobait beheiti egin du langabeziak Doneztebeko Enplegu Bulegoan

Abuztuan goiti egin zuen eta 595 langabaturekin bukatu zen hilabetea

ttipi-ttapa

Euskal Herrian eta estatuan langabeziak goiti egin badu ere, eskualdean abuztuko goitirako joera gelditu eta zertxobait beheiti egin du langabetu kopuruak iraillean. Zehazki, irail hondarrean 591 ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emandako langabetuak, abuztu hondarrean baino 4 guttiago eta beraz, 600eko muga gainditu gabe.

Doneztebeko bulegoaren bitartez 378 kontratu gauzatu ziren iraillean, eta horietatik 73 izan ziren mugagabeak. Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtetik goitiko emakumeak dira langabezia gehien jasaten dutenak eta gainera, goiti egin zuen iraillean. Irailean 325 ziren langabezian zeudenak eskualdean, abuztuan baino 4 gehiago. 25 urtetik goitiko gizasemen artean, aldiz, nabarmen beheiti egin zuen langabeziak, 197 gizon baitzeuden lanik gabe, aitzineko hilabetean baino 19 guttiago. 25 urtez behetikoeetan abuztuan baino 12 gizaseme gehiago zeuden lanik gabe, 42 guzira. Emakumeei dagokienez, aitzineko hilabetean baino bat guttiagok eman zuen izena Doneztebeko bulegoan, 27k guztira. Lan arloei dagokienez, zerbiztuen arloak segitzen du diferentziarekin langabetu gehien biltzen, 353 langabaturekin, baina abuztuan baino 8 guttiago ziren iraillean.

NAFARROA OINEZ 08 ATERA EZAZU MIHIA

Horrela bai

Atera ezazu mihia, auzoko Nafarroa Oinez honetan cusilaran laguntzako. Eta, Euskaltelen hitz egiten duzun balyoiztean, zure mugikorreko kontsumoaren 55 Nafarroako Ikastolen Elkarteari emango diozu. Baita, Euskara maila badienu, zure ezazu mihia.

Fit, orain, ezaraztu Nafarroa Oinezeko paketea berari truke; Nokia 5310 Express Music mugikorra, mugikorrerako zorra, mobilari har eta euzkoariko SMS-hirugia batre ezazu.

Zure Euskaltelen saltoki batena, edo deitu 11277 telefono zenbakira

FRANZ Euzko Ikastolen Elkarteak, 2010ko Nafarroa Oinez honetan cusilaran laguntzako. Euzko Ikastolen Elkarteak hitz egiten duzun balyoiztean, zure mugikorreko kontsumoaren 55 Nafarroako Ikastolen Elkarteari emango diozu. Baita, Euskara maila badienu, zure ezazu mihia.	FRANZ Euzko Ikastolen Elkarteak, 2010ko Nafarroa Oinez honetan cusilaran laguntzako. Euzko Ikastolen Elkarteak hitz egiten duzun balyoiztean, zure mugikorreko kontsumoaren 55 Nafarroako Ikastolen Elkarteari emango diozu. Baita, Euskara maila badienu, zure ezazu mihia.	FRANZ Euzko Ikastolen Elkarteak, 2010ko Nafarroa Oinez honetan cusilaran laguntzako. Euzko Ikastolen Elkarteak hitz egiten duzun balyoiztean, zure mugikorreko kontsumoaren 55 Nafarroako Ikastolen Elkarteari emango diozu. Baita, Euskara maila badienu, zure ezazu mihia.
--	--	--

Beharrezko informazioa eta zuzenbideak bakoitzaren webgunean aurkitu daitezke. Mugikorrak 6 eta 7ko zenbakietan erabiltzeko erabiltzen dira. Euzko Ikastolen Elkarteak hitz egiten duzun balyoiztean, zure mugikorreko kontsumoaren 55 Nafarroako Ikastolen Elkarteari emango diozu. Baita, Euskara maila badienu, zure ezazu mihia.

MALERREKA

Igerilekuen gibelego aldean egingen da Doneztebeko Osasun Etxe berria

Jabego pribatuaren lur eremuarekin aldaketa egin da

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak eskualdeko Osasun Etxe berria egin nahi du Donezteben eta horretarako tokirik onena igerilekuen gibelego aldea izanen dela iritzi diote Doneztebeko Udalak eta Gobernuak.

Igerilekuen gibelego alde hori jabego pribatuaren esku zegoen orain arte, baina Udalarena zen bertze eremu batekin aldaketa egin da eta horrela, herriaren esku gelditu da igerilekuen gibelego lurzattia, lehenengo poligonoko 36. lurzattia deiturikoa. Guztia aitzinera eramateko Udal Planeko Hirigintza Arauetako 73. artikuluan aldaketak egin behar izan dira. Heldu diren urteotan egingen den proiekturik haundienetarikoa da Osasun Zentroarena. Malerrekan sekula eskaini ez diren zerbitzuak eskainiko direla iragarri da: operazio-gela, ginekologia zerbitzua...



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Kide berriak Elgorriagako Onddo eta Zizen Kofradian Elgorriagako Onddo eta Zizen Kofradia bere besta egun handia ospatu zuen urriaren 5ean. Aurten, Kofradia sortu zenetik hamabortzgarren urteurrena ospatu zuten eta, urtero bezala, ohorezko kide berriak izendatu zituzten, guztira lau: Leitzako Basakabi jatetxeko Alex Mugika sukaldaria; Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate Departamentuko kontseilaria den Isabel Garcia Malo; Espainiako Etxebizitza Ministerioko ordezkari eta bete zuten Juan Maria Marin eta Javier Heras mediku traumatologoa. Ohorezko lau kideez gain, Teresa Catalan kofradiako enbaxadore izendatu zuten. Kontuan hartuz emakume hau Zaragozako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan Konposizio eta Instrumentazio katedraduna dela, Galarregik heldu den urterako kofradiarentzat himnoa edo ereserkia konposatzea eskatu zion. Gainerakoan, Salvador Arozarenaren omenez antolatzen den kaxula lehiaketaren ondotik, dastatzeko aukera eskaini zen. Doneztebeko txistulari eta Beti-Alai txarangak eta Zubietako joaldunek Turistaren Eguneke giroa berotzen lagundu zuten beraien doinuekin eta Migtelxo Saralegik harri-jasotze erakustaldia eskaini zuen plazan.

ZUBIETA

Mediku zerbitzua bermatzeko eskaera Gobernuari


ttipi-ttapa

Patxiku Mitxelena Zubietako alkateak ohar bidez, Malerrekako mediku zerbitzua bermatzeko exijitu dio Nafarroako Gobernuari. Malerrekan, lehen arretako zerbitzuak lau kupotan daude banatuak: Sunbilla, Doneztebe, Ituren eta Beintza-Labaienen. Lau mediku eta pediatra bat daude eta ordezkapenak egiteko ez dago langilerik. Titular baten faltan, bertzeek bi kupo elkaritzen dituzte eta Donezteben hartzen dute guztiei kontsulta, herrietako kontsultategiak itxiz. «Gaixoak Doneztebera mugitzera behartuak daude». Egoera honen aitzinean, arazoari konponbidea emateko eskatu dio Udalak Gobernuari, eta herritarrei, berriz, kaltetuak direnean erreklamazio orriak betetzeko.

APARAN, S.A.

BIRIKOMAILA eta ZIRAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagamak
- KJT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 466 080
Fax: 948 460 334
DONEZTEBE



MARTIKO

Martiko
Euzkadi, s/n
51780 Bera, Nafarroa
Tel. 948 825016 Fax. 948 825038
www.martiko.com

Abaitzeko arropak eta erretzak



Martikorekin
za zazu
sukaldari.

DENDA
ORDUTZEA
NATURALENTZ
ORDUTZEA

R. 10etik
12.30era

14.30etik
17.00etara

ITUREN

'Ordu Txikitan' saiora joateko gonbita egin die eskolak gaztetxoei

Lehen Hezkuntzan ari diren 7 eta 12 urte bitartekoak joan daitezke

Arkaitz MINDEGIA

ETB1eko *Ordu txikitan* saioan parte hartzeko neska-mutikoen kastinak antolatzen ari dira Euskal Herriko ikastetxe ugarian. Bada, ltu-rengo eskolan ere deialdia luzatu dute eta Lehen Hezkuntzako 7 eta 12 urte bitartekoek parte hartu ahal izanen dute. Horretarako eskolatik etxeetara gutun bat bidali da saioaren nondik norakoak azalduz, eta izena eman nahi duenak zer egin behar duen jakin dezan.

Gure eskualdetik dagoeneko hainbat lagun ikusi ditugu Euskal Telebistaren lehen kateko saio honetan. Beraz, badakizue, animatu eta parte hartu. Ongi pasatuko duzue!

Eskolari dirulaguntza

Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxe publikoentzako Nafarroako Gobernuak



ARGAZKIA: WWW.EITB.COM

Mikel Elizegi goizuetarra eta neska-mutikoak Ordu txikitan saioan. Animatek gazteak eta ongi pasatuko duzue!

2008an eginen diren eskolaz kanpoko ekintzetarako dirulaguntza onartu du. Hala, herriko eskolak 498,56euro jasoko ditu. Xehetasun gehiago Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako 116. boletinean dago.

Bertzalde, jantokiko dirulaguntza ere onartu du Nafarroako Gobernuak eta honen berri ere

113. aldizkarian ikus dezakezue.

Aurtizko Bestak

Azaroan eginen diren San Martin bestak dagoeneko prestatzen hasiak dira Aurtitzen. Aurten azararen 7tik 11ra ospatuko dira. Urtero bezala, adin guztietako jendearentzako ekitaldiak prestatzen ari dira gazteak.

Aioneko Iturriko ura erabilgarria

Espainia Iparraldeko Ur Konfederazioak berriki ebatzitakoaren arabera, Amezitia auzoan dagoen Aioneko Iturriko ura erabilgarria izanen da hemendik aitzinera. Etxeko erabilpenarako, aziendei ura edanarazteko edo bertzelako ureztapenak egiteko erabil daitezke.

BEINTZA-LABAIEN

Aizkoraren Museoa egiteko dirulaguntza


ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kultura eta Turismo Departamentuak proiektu turisticokoak egiteko hainbat dirulaguntza onartu ditu. Nafarroa osoan guztiran 14 entitatek jasoko dute laguntza eta tartean Beintza-Labaienek. Zehazki 7.000 euro jasoko ditu Aizkoraren Museoaren proiektua erredaktatzeko. Antzinako errotaren barrualdea zaharberri egin nahi da eta aizkorari buruzko museoa egin.

Ostatua errentan emateko

Beintza-Labaiengo Udalak lehiaketa irekita atera du Labaiengo Ostaturaren hartzeko aukera. Lehiaketan parte hartzeko behin-behineko fidantza 150 eurokoa izanen da eta proposamenak udal txeko idazkaritzan aurkeztu beharko dira azaroaren 10eko 12:00ak baino lehenagotik. Informazio gehiago nahi izanez gero, Herriko Etxera jo daitezke astelehen, asteazken eta ortziraletan 9:00etatik 12:00etara. Telefonoa, berriz, 948 450864 da.





BEINTZA-LABAIENGO UDALA

LABAIENGO OSTATUAREN ERRENTAMENDUA

Beintza-Labaiengo Udalak, lehiaketa irekian ateratzen du "Labaiengo Ostaturaren Errentamendua" izeneko higiezinaren errentamendua. Lehiaketa honetan parte hartzeko behin-behineko fidantza 150,00 euro da.

Proposamenak Beintza-Labaiengo Udaleko idazkaritzan aurkeztuko dira. Epea azaroaren 10eko eguerdiko 12etan, bukatuko da. Informazio gehiago, udal txean aurki dezakezu. Udal txeko ordutegia: astelehena, asteazkena eta ortzirala, 9etatik 12 etara. Tel.: 948-450864.

Beintza-Labaienen, 2008eko urriaren 6an
ALKATEA, Patxi Otxandorena Juanotena

ARANO

Argazki Lehiaketa antolatu da heldu den urteko egutegia egiteko

Kontzeju tabernan aurkeztu behar dira azaroaren 2a baino lehen

M. ANSA / K. KLABER

Azkenekobi urteetan bezala, aurten ere, San Martin jaiak ospatuko dira Aranon. Azaroan zazpi ekitaldi antolatu dira.

San Martin jaien antolakuntzatik dei egin nahi zaie aranoar guztiei Arano I. Argazki Lehiaketan parte har dezaten. Lehiaketan parte hartzeko ez da argazkilari profesionala izan beharrik. Aski da Aranoren inguruko gustuko argazki-

ren bat aurkeztearekin. Berria edo zaharra izan daiteke. Aranoko paraje,azienda edo pertsonak izan daitezke argazkiaren protagonistak.

Argazkia aurkezteko, azaroaren 2a baino lehenago utzi beharko da Kontzeju tabernan. Ez da komeni argazki originalaren aurkeztea. Originalaren kopia bat eskatzen dugu, gero komisioaren esku geratuko baita argazkia. Beraz, aurkeztu



ARTXIBOKO ARGAZKIA

San Martin jaietan izaten diren ekitaldi desberdinen irudiak dira.

nahi den kopia sobra batean sartu behar da, eta zeinena den argazkia, argazkiaren azalpen txiki bat eta kontakturako telefono zenbakia jartzea eskatzen da.

Aukeratutako argazkiekin datorren urterako

egutegi eder bat egiteko asmoa dugu. Beraz, zuen parte hartzea eskatzen dugu mesedez.

Alkateordea lanean

Iñigo Larrea alkatea irailaren 16az gozotik he-

rritik kanpo dagoenez, alkate bezala dituen eskumen guztiak Juanito Leonet alkateordearen esku utzi ditu. Urriaren 24ra arte zeregin horretan segituko du. Ebazpen hau irailaren 11n emandakoa da.

ORAIN ZURE ESKUBIDEA DA
Nafarroan, ez dugu ez ikusierik egiten. Bere eta gure duintasunagatik, enplegarazko ditugu bere eskubideak

Nafarroako Gobernua
2012 | **2013** aldiak

GIZARTE ZERBITZUEN ZORROA
902 165 170
www.navarra.es

AMPARO, 86 URTE
MENDEKOTASUNA: ALZHEIMER.

GOIZUETA

Zubimusuko aterpetxearen aurreproiektuari baietza eman dio Gobernuak

Egitasmoa aurrera ateratzeko, 19.844 euroko laguntza jaso da

Esteban AROTZENA

Idoia Legarreta arkitektuak egindako aterpetxearen aurreproiektua proiektu bihurtuko da hurrengo urteko hilbeltzaren 31 baino lehen. Bere oniritzia eta 19.488 euroko dirulaguntza emandio Nafarroako Gobernuak horretarako Udalari. Egitasmoa 24.360 euro kostako dela kontuan hartzen badugu, horren %80a da Iruñeak eman duena. Orain dela hiruzpalau hilabete burutu zuen Udalak Zubimusu eraikin ederean eginen litzatekeen aterpetxearen aurreproiektua. Udaz geroztik, aldaba asko jo omen ditu alkateak Iruñean, eta ikusten denez, fruitua ematen ari da gestio hori. Erabat ofiziala egin bitartean, obrarako dirulaguntza ziurtatzerik ez dagoen arren, proiektua subentzionatzeak perspektiba ezin hobek ire-

kitzen omen dizkio Udalakestrategikotzat jotzen duen obra honi. Horixe esan omen diote behintzat argi eta garbi alkateari Gobernuako Kultura departamentutik.

Beste hainbat zerbitzuz gain, 30 lagunentzat lotarako lekua izanen luke labaderoaren gaineko bisolairuetan lehenengo mailakoa izanen litzatekeen aterpetxeak. Horretarako, 464.000 euro beharko omen dira, aipatutako aurreproiektuak dioenez.

Osasunbidearen erantzuna

«Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendari-tzak lanean jarraitzen du Leitzako Osasun Eskualde Oinarrizkoari osasun laguntza egokia bermatuko dioten irtenbideak bilatzeko». Erantzun hauxe jaso dute, hitzez hitz, larraldien zerbitzua lehengora bueltatzea es-



UTZITAKO ARGAZKIA

Estrategikotzat jotzen du Udalak Zubimusun eginen litzatekeen aterpetxearen proiektua.



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

Bisita gidatua Alkasoaldeko megalitoen inguruan

40 lagunetik goiti joan ziren urriaren 4an Alkasoaldea auzoan inauguratu berri den ibilbide megalitikoan barna egin zen bisita gidatura.

katuz Osasunbideari erreklamazioa luzatu zioten 200 herritarrek. Kristina Ibarrolak esandako honekin herrian konformatu ez direnez, sinadurak biltzeari ekin diote orain. Sinadura orriak

herriko komertzioetan daude, eta erreklamazioa luzatzeko inprimakiak Osasun Etxean.

Antzerkia

Nafarroako Gobernuaren babespean eta

Udala eta Kultur Taldearen antolakuntzapean, goi mailako antzerki emaldia izanen da ikusgai hil honen 25ean Ganbaran. TTR Teatro taldeak *Salamobra* eskainiko du 20:00etatik aurrera.

ESKOLA BERRIA

Ile-apainketa, estetika

Erdi eta gol malla. Ellerrek urteetan Jendearen estillismoaren garapenean lan egin duen profesional taldea jarriko du zure esku.

Goza ezazu bere instalazio modernoekin eta zure garapen profesional eta personalerako behar dituzun aholkuekin...

943 01 36 27

www.elier.eu • elier@elier.eu • ADUANA 27 IRUN

elier



LEITZA

Suteak kiskali egin du Sorobarrenge borda eta jabeei laguntzeko bi kontu zabaldu dira

Euskadiko Kutxa eta Nafarroako Kutxa horretarako aukera dago

ttipi-ttapa

Suak eraman du Leitzalarreko Sorobarrenge borda. Urriaren 3ko gauean gertatu zen ez-beharra, 23:00-00:00ak aldera. Antza, tximiniak su hartu zuen eta kalte material handiak eragin zituen. Bordan bizi zen bikotea ezer gabe utzi zuen suak eta hortaz, bikoteari laguntzeko bi kontu zerbaki zabaldu dira Nafarroako Kutxa eta Euskadiko Kutxa. Nahi duenak, beraz, kutxa horietara joan eta bi kontu horietako batean eman dezake borondatea.

Geltokiko eraikina

Nafarroako Gobernu Kultura eta Turismo Departamentuak geltokiko eraikina konponduko du eta lanak laster hasiko dira. Hala jakinarazi zuen Juan Ramon Corpas Kultura eta Turismo kontseilariak urriaren 7an egindako bisitan. Lanaren aurrekontua 255.273 eurokoa da eta obra aurten bukatuko omen da.

Eraikinaren egitura sendotzeko hormigoizko forjatu berriak egingen dira, eta eskailera bat ere egingen da solairu guztiak lotzeko. Eraikinari altue-

ra handiagoa ere ematen zaio, teilatu azpiko pisua hobeki aprobetxatu ahal izateko. Teilatuhodi eta zorroten berriak ere paratuko omen dira.

Eraikinaren aurrealdean, bestalde, hautsita dauden ladriloak antzekoekin ordezkatuko dira, eta arotzeriaren ordez aluminioa jarriko da.

Proiektu hau eta Uitziko tunela berreskuratzeko egitasmoak Pla-

zaolako bide berde berreskuratzeko planaren barne sartzen dira.

UITZIKO TUNELA

Uitziko tunela berreskuratzeko proiektuak 1.391.908 euroko aurrekontua du eta Gobernuak 835.145 euroko dirulaguntza eman dio. 2.610 metroko luzera dauka eta zola berri eta argiak jaritzeaz gain, tunela sendotuko da, telegrafo-pos-

teak kenduko dira eta tunel bamean larrialdi deiak egiteko sistemaren bat ezartzea aztertuko da. 2010eko apirilera bukatzea espero da.

Obrak Osasun Etxean

Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuak hainbat konponketak egingen ditu Osasun Etxean. Kontsulta berria egokituko da eta horre-

kin batera, komunak ere araudira moldatuko dira. Haize egokitua eta apartakalekuan estalpe bat jarriko dituztela ere iragarri dute. Lanen aurrekontua 129.346 eurokoa da eta osotasunean Gobernuak ordainduko du.

Nievek bukatu du denboraldia

Amaitu du denboraldia Mikel Nieve txirrindulariak, hirugarren postu bat lortuz egin du, gainera. Urriaren lehenengo asteburuan jokatu zen Cinturo l'Emporda txirrindulari lasterketa eta podiumera igotzeko aukera izan zuen. Hori izan zen Nieveren denboraldiko azken proba. Aurten egin duen lanarekin kontent dago Mikel: «urtetik urtera hobetzen ari naizela ikusten dut eta nahiko urte polita izan da». Garaipenik ez du lortu, baina erregularra izan da eta pozik dago. Orbea-Oreka SDA taldean egin du azken denboraldia, baina hurrengotik aurrera Euskaltel-Euskadin ariko da. Maila altuagoko lasterketak izanen direla badaki, baina ilusioz ekinen dio lan horri ere. Momentuz, denboraldia bukatuta atsedaldia hartuko du hilabete batez.



ARGAZKIA: IDOIA ZABALETA

Aurrera Kirol Elkartearen bigarren edizio arrakastatsua

Joan den urteko Aurrera Egunak arrakasta izan bazuen, ezin gutxiago esan bigarren edizio honi buruz ere. Urriaren 4an egin zen II. Aurrera Eguna, eta iragarritako ekitaldi guztiak hutsik gabe joan ziren: rokodromoa, tirolina eta zaldiak; pilota partidak; dantza saioak; futbol partidak; txaranga, bazkaria; dantzaldia... Herri bazkarian ere iaz baino 50 lagun inguru gehiago bildu ziren, 150 guztira. Antolatzaileak gustura ageri ziren egunak izandako emaitzarekin, elkarteko bazkideez gain, jende asko ibili baitzen kaleetan barna.

Aukera ezazu **ttipi-ttapa** laguntzeko proiektua
can **NAFARROAKO AURREZKI KUTXA**ren

**Zeuk aukeratzen duzu,
zeuk erabakitzen duzu**

Proiektu zka.: 14640



ARESO

Hainbeste kosta ondotik, berriro zabaldu dute medikuaren kontsulta

Bere garaian, herritarrak Leitzara joaten ginelako kendu zuten zerbitzua

Juana Mari SAIZAR

Urritik aurrera berriro medikuaren kontsulta martxan jarriko da, asteartean 14:00-etatik aurrera. Ea denok kontzientzia hartzen dugun bere erabilpenarekin, zerbitzu hori martxan jartzea hainbeste kostatu eta gero, utzi dugulako ia desagertzen. Deialdi gutxi zirela eta medikuak etortzetik utzi zuen, nonbait denok zuzenean Leitzako konsultategira joaten hasi ginelako, herrian dugun baliabidea alde batera utziz. Hemendik aurrera, beraz, denon artean saia gaitezen mantentzen, gerora alferrik izango baitira kexak eta haserreak. Manten dezagun geurea dena eta poztu gaitezen herrian

ditugun zerbitzuengatik. Dakizuen bezala, telefonoz hitzordua eskatu behar da aurretik.

Antonio artzaina txukun

Antonio Alustiza artzainak oso lan polita egin du aurrean bere ardi txakurrarekin batera. Nafarroa mailan lehen postua eskuratu du, eta Euskal Herrikoan, berriz, laugarrena. Nazioartean ere lehiatzeko aukera edukiko du, eta hirugarren postua lortu du. Herritarrok pozik egon gaitezke Aresoko herria ezagutzera ematen baitu.

Ehiza sasoi

Aurtengo ehiza postuekin 20.303 euro atara dira guztira. Pozte-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Eskolaz kanpoko ikastaroak

Eskolaz kanpoko ekintzen barnean, psikomotritatea jarri da martxan 3, 4 eta 5 urteko umeendako. Zazpi laguneko taldea osatu dute. Bestalde, multikirola deitu duten ikastaroan 6 urtetik gorako 10 lagun bildu dira. Horrez gain, ludoteka zerbitzua ere zabaldu nahi da baina aurrerago izango dugu horren berri.

koa da joan den urtean baino diru gehiago baita. Orain dena prestatu dago, eguraldiaren eta ehiza pasaren zain baitaude ehiztariak.

edredoi fundak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Mantetan eskaintzak

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

BAZTAN

Ikasturtearekin batera, ustekabeen obretan hasi dira Iruritako eskolan

Sortzen diren zaraten ondorioz, zaila da klaseak ematea

Maite OTEIZA

Uda izaten da ikas-teeetan obrak egiteko garai nagusia, eskolak hutsik daudelako. Uda honetan Amaiur, Azpilkueta, Erratzu, Oronoz eta Elizondoko San Francisco Javier eskolatan eta Baztan Ikastolan egitekoak ziren. Tarteka mantentze obren beharra izaten da, baina gehienetan, matrikulazioa haunditu delako espazio gehiago behar da.

Obra gehienak bere tenorean egin dira. San Francisco Javier eta Oronozko eskolakoak, halere, abenduaren 31 arteko epea dute Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak jasotzeko. Baina tartean, eskola arratsaldean hasten zen egunean, Iruritako eskolan teilatuan obretan hasi ziren. Ustekabea afera izan da, eta eskolaren martxan ondorio larriak ekarri ditu. Ezinezkoa da dauden asotsekin klaseak ematea, eta hortaz, goitiko geletako haurrak lekutu behar dira. Gainera, eskolak espazio arazoak ditu. Kanpokoaldean, eskola inguruan alde bat itxia egon arren, bertze aldean errekreoak egi-

ten dira. Herrian eskola berria egitekoa da 2010-2011 ikasturterako, obra honek kezka eta zalantzak sortu ditu gurasoen artean.

Lekarozko obrak

Udalak Mariezcurrena eraikuntza enpresari esleitu dizkio Leka-

rozko ur beharrak asetzeko egin behar diren lanak. Iruritatik ekarriko da ura eta lanak 553.331,32 euro kostako dira. Aurkeztu diren eskaintzen artean Mariezcurrenarena aukeratu du Udalak, guztien artean interesgarriena dela iritzita.

Beartzungoen besta

Elizondoko Antxitona trinketean antolatu zuten Beartzungoen beren urteko besta. 80 bat lagun elkartu ziren, bertan eta kanpoan bizi direnak, eta giro ederrean lehenagoko kontuak oroitarazi zituzten.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Herrietako eskolen besta arrakastatsua Amaiurren

Lehenbiziko aldiz, Urdazubi, Zugarramurdi, Amaiur, Azpilkueta, Erratzu, Arizkun, Gartzain, Irurita, Arraios, Oronoz-Mugairi, Almandoz eta Zigako eskolak elkartu egin dira anaitasun besta batean. Goizean Lamierratik abiatuz (Urtsuatik) Amaiurren oinez abiatu ziren 200 bat haur, guraso eta irakasle. Ilara koloretsua Amaiurko eskolarat ailegatzearekin *Ongi etorri* paratzen zuten pankarta batek hartu zituen parte-hartzaile guztiak. Haurrendako herri kirolak antolatu ondoren, Gure Ametsa frontoian, bazkaria autogestionatua izan zen, eta 250 pertsona bildu ziren. Bestari akabaila emateko dantzaldia izan zen. Topaketa honek arras sentsazio ona utzi du guraso, haur eta irakasleen artean. Aurtengo antolatzaileak Baztangoizako eskoletako gurasoak izan dira (Amaiur, Azpilkueta, Erratzu eta Arizkun).

TURISMOA

Udako ekimeneren balantze ona egin du Bertiz Partzuergoak

ttipi-ttapa

Balorazioa ona da, bisitarien kopuruak goiti egin baitu eskualdean. Baztan, Bortziariak, Malerreka eta Xarreta aldean ibili diren bisitarien datuak aztertuta, balorazio baikorra egin du Bertiz Partzuergo Turistikoa. Urdazubin eta Baztanen egindako pilotaren inguruko ekitaldiek «harrera ona» izan dute; bisita gidatuek eta feriek ere «emaitza onak» eduki dituzte. Guztien artean, Leurtzako urtegiak izan omen dute eskaririk haundiena eta izandako arrakasta ikusita, urteko bertze sasoiaren ere bisitak antolatzekotan dira. Gisa berean, aipatu, Donamariako eta Iruritako jauregietan ere jende andana ibili dela, eta Urdazubi-Baztango Donejakue Bidea ezagutarazteko egindako ibilbideen inguruan ere «balorazio bikaina» egin duela Partzuergoak. Bertetik, Baztan eta Urdazubiko Udalaren ekimenez, uda osoan zabalik egon den turismo bulegoaren arabera, ekainean 305 lagun pasatu ziren bulegotik; uztailan 1.196 (iaz baino guttiago); abuztuan 2.785 (iaz baino % 22 gehiago); eta irailean 530 (iazkoaren bikoitza).

gaztelu scl
Iturgintza
kalefakzioa - saneamendua - gasa
Telefonoa: 948 610 848 - 948 610 848
Fax: 948 610 856
LEITZA

ttipi
ttapa
www.ttipi.net
info@ttipi.net
☎ (0034) 948635458

BAZTAN

Amaiurko Gazteluan indusketa lanetan segitzen dute urrian

Garbiketa lan handia egin da eta gazteluko pareta bat agerian dago

Maite OTEIZA

Hiru urte igaro dira Aranzadi Zientzia Elkartea Amaiurko monumentuan indusketa lanetan hasi zenetik. Jakinen duzueenez, Nafarroako Erresuma Gaztelaren aurka defenditu zuen azken bastoia izan zen Amaiurko Gaztelua. Horren harira, gazteluaren arrastoak kanporatu edo aieratzeko asmoz ekin zioten lanei. Proiektu honetan Baztango Udalak, Udalbidek eta Amaiurko herriak parte hartzen dute. Lanak uda sasoiari egin ohi badituzte ere, aurtengo urrian bi aste buruz Aranzadi Elkartekoen eta amaiurtarren artean auzolanean ari dira. Aipatu, gisa berean, Udako Euskal Unibertsitatearekin elkarlanean, uda honetan ikastaroak eskaini direla gazteluan.

Dagoeneko garbiketa handia egin dute eta, berteak berte, Pedro M^a Esarte historialari

baztandarraren lanei esker, posiblea izan da bere garaian gaztelua nolakoa zen ideia bat egitea.

Monolitorat doan bidean agerian gelditu da gazteluko pareta handi bat, eta kanpoko harrisiaren arteko babes espazioa.

IZARRAK IKUSTERA

Aranzadi Zientzia Elkarteko astronomoek Gorramedirat ateraldia antolatu zuten gau ez izarrak ikusteko, eta azalpenez gain tresnak ere eskaini zituzten bildutakoei.

Zigaren margoak Oteiza museoan

Javier Zigaren berderatzi lan Elizondoko Jorge Oteiza museoan daude behin behineko erakusketan ikusgai. Udala eta Ziga fundazioa elkarlanean ari dira margoei behin betiko lekua bilatzeko, eta Zigaren museoa sortzeko asmoarekin.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Izokinei bidea errazteko obretan Elizondoko presan

Azken asteotan obretan ari dira Elizondoko presan, izokinak pasatzeko eskailera konpontzeko lanetan, hain zuzen. Nafarroako Gobernuak Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuaren eta Espainiako Iparraldeko Ur Konfederazioaren planaren barne egiten ari dira lanak. Hainbat proposamen luzatu zituzten Udalarik, eta honek presa Elizondoko historian garrantzi handia duen ondasun arkitektonikoa dela iritzita, presa osotasunean botatzeko aukera guztiz baztertu zuen. Horrenbertez, orain arteko eskailera zaharberri eginen da. Azken 20 urteotan toki berean antzeko obra egiten den hirugarren aldia da.

Hurbildu IKTetara

Ordenagailuak eta Internet herri tikiatarat hurbiltzeko asmoare-

kin, urriaren 13an eta 14an Arizkun eta Iruritan unitate mugikorra ibili da, Nafarroako bertze hainbat herrietan

bezala. Horren bidez, herritarrek aukera izan dute teknologia berrien mundura hurbiltzeko, dohanik.

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA

- 300m² pertsona markarik ezaguriarekin, uberrin onak, kuzmetikuak...
- Euskal Herriko preziorik hoberenak

EGUNERO IREKIA

Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Inarte kamika
FI 170ND00

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

BAZTAN



ARGAZKIA: ONDIKOL

Urriaren 3an aurkeztu zituen Lindutx-BKTk 2008/2009 denboraldian maila ezberdinetan ariko diren bere zazpi taldeak. Guztira 105 jokalar eta zortzi entrenatzaile dira.

Emakumezkoen eskubaloiko zazpi talde aurkeztu ditu Lindutx-Baztan BKTk

105 jokalar eta zortzi entrenatzaileekin osatu dituzte taldeak

ttipi-ttapa

105 jokalarirekin eta zortzi entrenatzaileekin estreinatu du denboraldi berria BKT Baztango Kirol Taldeak. Urriaren 3an Elizondoko Udal Kiroldegian egindako agerraldian aurkeztu zituen Lindutx Baztan BKTk bere zazpi taldeak.

Alebin mailan 20 jokalari

lari ari dira eta Totu Iturzaeta dute prestatzaileak. Kategoria honetan mutilek ere jokatzen dute baina bi baino ez dira.

Infantiletan, lehenbiziko urtekoen kategorian 16 jokalar dira eta Ainara Unanua eta Elisa Arretxea dira entrenatzaileak. Bigarren ur-

tekoen mailan, berriz, 12 jokalar daude eta Juanjo Ramos dute entrenatzaileak.

Kadeteen mailan ere bi talde osatu dituzte. Lehenengo urtekoen mailan 13 jokalar daude eta bigarrenen 15. Amalia Sanduta eta Iñaki Uriarte dira prestatzaileak, lehenengo

urtekoena Sanduta eta Uriarte bigarren urtekoena.

Jubeniletan BKTk ez du talderik, baina taldeko lau Doneztebeko Errekarekin ariko dira denboraldi honetan.

Seniorretan, bigarren mailako taldea 13 lagunek osatzen dute. Enrike Petrirena entre-

natzailearen aginduetara ariko dira. Maila Nagusian, azkenik, 12 dira jokalaria. Entrenatzaile berria dute, Julian Baldanta, eta denboraldi hasierako lehen partida, behinik behin, garraipenarekin hasi zuten. Molins de Rei talde kataluniarrari 29 eta 27 irabazi zioten.

Eskisaroi
JALIZOIA

Isimur Ilerritza
Tfnos: 948 580 013
ELIZONDO

Pitti
eskabazioak

Tel: 616 513 491

Herrialdeak: SI, ZUBIA

HIGIENE NATURISTAKO ZENTROA

TAYRI
KIROMASAJISTA

Indarberritu zure osasuna jateko ohitura osasuntsu eta egokien bitartez, zure gorputzak duen asimilazioa eta eliminazioa kontrolatuz.

Loreak erabiliz, bestelako ondorez ere zuzentzen laguntzen ditugu: sentimendu eta nahigabeak, psikologikoak edo portaerari dagozkienak.

Masajeak: bizkarrezurra, lumbagoa, ziatika, kizkurguncak, zirkulazioa...

Bederatzi eguneko tratamenduak bakoitza 15 €

Oparitu Osasun-Bonoak
Bederatzi eguneko tratamendua
hezur eta zirkulazio-sistemak
bizkortzeko

Eskatu hitzordua
Tel. 647 156 370
Kale Nagusia, 37 Bis - Solairuartea
BURLATA (NAFARROA)
(Bogart gozotegiaren ondoan)

KULTURA

Zabalik dago Nafarroako Euskal Kantu Txapelketan izena emateko epea

15 urtetik goitikoek parte har dezakete, bakarka, binaka edo taldean

ttipi-ttapa

Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatuta, las-ter abiatuko da Nafarroako Euskal Kantu Txapelketaren edizio berria. Dagoeneko izena emateko epea zabalik dago eta azaroaren 5a bitarte izanen da horretarako aukera. Interesatuak hainbat bide dituzte izena emateko: Euskal Kantuzalearen Nafarroako egoitzara deituz (948 144706 -9:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara-) edo idatziz (*nafarroagaria@kantuzale.net*). Nafarroako edozein irradi euskaldunetan ere eman daiteke izena, gure eskualdean, erraterako, Xorroxin Irratian eta Leitzako Karrape Irratian.

Txapelketako lehenbiziko saioa azaroaren 8an jokatu da Altsasuko lortia aretoan. Bigarrena, berriz, Elizondoko Lur aretoan eginen da, azaroaren 15ean 18:00etatik aitzinera, eta



ARGAZKIA: M. FAGOAGA ETA J. UGALDE

Norberak sortutako kantuak izatea baloratuko du epaimahaiak. Argazkian Garxtot abeslaria. Berak ekoiztutako kantuekin aurkeztu izan da txapelketara.

final handia, azaroaren 22an Burlatako Kultur Etxean, ordu berean.

15 URTETIK GOITIKOENTZAKO

15 urtetik goitiko edozeinek parte har dezake lehiaketan, kantari amateurak baldin badira -salgai dauden grabaketak ekoiztu dituztenak ez-. Bakarka, bikoteka zein taldean (3 partaidetik 10 arte) kantatu

ahal izanen dute parte-hartzaileek. Bakoitzak balditan aurkezteko modua izanen du kanporaketetan. Aitzitik, finale-rako sailkatuz gero, epaileek erabaiko dute zein abestuko duen final handian.

Aitzineko edizioan bezala, partaide berriei euren meritua gogorazteko *Berrien maila* osatuko dute, eta horiek sari berezia jasoko du-

te. Taldeen parte-hartzeari ere bulkada berezia eman nahi dio Kantuzale Elkarteak.

SARIAK

Maila eta modalitate bakoitzeko lehenbiziko biek jasoko dituzte sariak. Baina horiez gain, sari bereziak ere egonen dira, hala nola, sormena edota partaide berrien meritua saritzeko aipamenak.

EUSKARA

Etorkinei harrera egiteko programa abiatu du UEMAK

ttipi-ttapa

Euskal Herrira datozen etorkinak gizarteratzeko helburuarekin, UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak etorkinei harrera emateko informazioa paratu du eskura bere 55 udalerrietan. Eskualdean, Arantza, Areso, Goizueta, Leitza eta Zubietan landuko da. Eskuorri horiekin, etorkinek eman beharreko pausoen eta dauzkaten zerbitzuen berri jasoko dute. UEMAK udal bakoitzarentzat prestatu dituen karpetetan, alde batetik, etorkinei nora etorri diren erakutsiko zaie. Ongietorria ematen dien testua bi hizkuntzatan egina dago, euskaraz eta errumanieraz, frantsez, ingelesez, portugesez, arabieraz edo gazteleraz. Euskal Herriko berezko hizkuntza euskara dela adierazi nahi zaie horrela, eta ikasteko aukerak dituztela, sorterriko ohitura, hizkuntza eta kultura baztertu gabe. Informazio orokorraren atalean, erroldatze eta gizarte zerbitzuei buruzko argibideak ageri dira, eta azken orrialdean herri bakoitzeko informazioa. Bertzalde, helburu berarekin 12 bat ekitaldi antolatu-ko dira UEMAKo udalerrietan.

ARKITAK
 ARQUITECTURA ETA INGENIERIA

ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
 URBANIZAZIO PROIEKTOAK
 ETXE BERRITZEAK
 NABEAK
 KONSULTAK
 INFOGRAFIA: 3D

ELIZONDO - Santiaño, 54 behea - 948 581 931
 BERA - Eztegera, 8 behea - 948 625 232

ITURRALDE
 pvc & aluminio

☎ 667 264 025 • 948 581 967
 ✉ maxcnc@itrra.es



Stockean dagoen autoren bat erosteagatik, Parrot esku libreko sistema edo TOM TOM nabegatzailea OPARI

2008ko urria

Km 0 eta auto ia be



KANGOO EXPRESSION GRAN VOLUMEN 1.5DCI 65CV

ABS • 2 airbag • Aire girotua • Ateen ixte-sistema zentralizatua • Beira-igogailu elektrikoa
Alboko ate bikoitz lerrakorra • Irratia MonoCD
Txaxis luzea • AUTO BAT BAINO GEHIAGO



KANGOO EXPRESS GENERIQUE 1.9D 55CV

Airbag gidariarentzat
Kargatik banatzeko tabikea
Kargalekuan, gainaldeko tranpailua
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



CLIO EXPRESSION

ABS • 4 airbag • Aire-klimatizagailua
Atzeranzko ispatila
Atzeko beira garbia
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



MASTER FURGONETA LUZA SOBREELEVADO 1.9DCI 120CV

ABS • Gidariaren airbag • Aire-girotua
Irratia • Kargatik banatzeko tabikea
alboko 2 atek lerrakorrak



KANGOO AUTHENTIQUE 1.9DCI 80CV 4x4

ABS • 2 airbag • Aire-girotua • Irrati kasetua
4 gurpiletako trakzioa • Ateen ixte-sistema zentralizatua • Beira-igogailu elektrikoa
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



KANGOO FARWAY

ABS • 2 airbag • Aire-girotua
Aluminiozko gurpil-hagunak
Atzeranzko ispatila
konpartimenduak, hegazkinak
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



SCENIC EXPRESSION 1.5DCI 85CV

ABS • 6 airbag • Aire-girotua
Beira-igogailu elektrikoa • Ateen ixte-sistema zentralizatua • Irratia MonoCD
Pintura metalizatua



KANGOO AUTHENTIQUE BERRIA 15DCI 70CV

ABS • 4 airbag • Beira-igogailu elektrikoa
Ateen ixte-sistema zentralizatua
Aire-girotua • Irratia MonoCD
Auto gaineko barrak
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



CLIO GRAND-TOUR

ABS • 6 airbag • Beira-igogailu elektrikoa
Ateen ixte-sistema zentralizatua
Aire-klimatizagailua
Auto gaineko barrak

900€

PEDRO GARMENDIA, S.A

Tel.: 948 580 431 - 948 580 436 - 608 977 685

Faxa: 948 580 973

ELIZONDO (Nafarroa)

garmendia@red.renault.es

errien hilabetea



1.5DCI 85CV 5 ate

Pack elektrikoa
Aire klimatizatua • Irrati MonoCD
Ispilu elektrikoak
Inetrik tintatuak
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



MODUS DYNAMIQUE 1.5 DCI 85CV

ABS • 4 airbag • Aire-klimatizagailua
Abiadura mugatzailea • Laino-argiak
Irrati MonoCD-MP3 • Ibilbide-kontrola
Aluminiozko gurpil-hagunak
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



CLIO DINAMIQUE 1.5DCI 85CV 5 ate

ABS • 4 Airbag • Pack elektrikoa
Aire-klimatizagailua • Irrati MonoCD
Abiadura mugatzailea • Atzeranzko ispilu
elektrikoak • Aluminiozko gurpil-hagunak
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



1.9DCI 80CV 4x4

Aire klimatizatua • Irrati MonoCD
Abiadura mugatzailea • Auto gaineko barrak
Ispilu elektrikoak • Alboko
Ispiluzkinetako erakoak
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



MEGANE DYNAMIQUE 1.5DCI 85CV

ABS • 6 airbag • Aire-klimatizagailua • Abiadura
mugatzailea • Fokuen pizte automatikoa • Euri
sentsorea • Irrati MonoCD • ASR ESP • Aluminiozko
gurpil-hagunak • Barruko ordenagailua
Larruzko bolantea • AUTO BAT BAINO GEHIAGO



KOLEOS DYNAMIQUE 2.0DCI 150CV 4x4

ABS • 6 Airbag • Bi-zona klimatizagailu autom.
Aldapen gora-behera kontrola • Aitzineko eta
gibebeko hurbiltasun radarra • Irrati CD MP3
17" aleaziozko hagunak • Erretrobisore elektrikoak
"Esku libreko" Renault txartela • Parking
automatikoko frenoak • Auto gaineko barrak
Aitzineko eta atzeko eserleku etzangarriak
Larruzko bolantea



DYNAMIQUE 85CV

Aire klimatizatua • Beira-igogailu elektrikoa
Aire zentralizatua
Aire • Irratia Mono CD
Auto gaineko barrak



MEGANE DYNAMIQUE 1.5DCI 105CV

ABS • 6 airbag • Aire-klimatizagailua
Abiadura mugatzailea • Fokuen pizte automatikoa
Euri sentsorea • Irrati MonoCD • ASR ESP
Aluminiozko gurpil-hagunak
Barneko ordenagailua • Larruzko bolantea



TRAFIC COMBI 9 PLAZA PASSENGER 2.0DCI 115CV

Ateen ixte-sistema zentralizatua
Beira-igogailu elektrikoa • Aire girotua
Irrati MonoCD • Atzeranzko ispilu elektrikoak

ZUGARRAMURDI

29.000 lagun baino gehiago pasatu dira uda honetann leizeetatik

Sorginen Museora, berriz, 8.500 lagun inguru hurbildu dira

Koro eta Margari

Bisitari andana pasatu da uda honetan leizeetatik. Zehazki 29.070 lagun hartu dira uztailetik irailera. Turista kopurua handia izanik ere, krisi ekonomikoaren eraginatik edo, joan den urteko baino txikiagoa da.

Sorginen Museoari dagokionez, aldiz, 2007arekin konparatuz, %30ean igo da bisitari kopurua. Aurten, 8.483 sarrera saldu dira hilabete horietan eta joan den urtean, epe berean, 5.950 saldu ziren. Promozio berezien bidez, 3.816 bisitari sartu dira museoan leizea bisitatu ondok.

Hilabeteka, museoak bisitari gehien izan duen hilabetea abuztua izan da, 4.049 sarrera saldu baitira, iaz baino 728

gehiago. Uztailean 2.578 bisitari izan dira, iaz baino 1.381 gehiago. Baina kontuan hartu behar da iazko uztailean 11 egunez bakarrik ireki zela. Irailan, 1.856 sarrera saldu dira, iaz bezalatsu. Egunean, banaz bertze 85 lagun sartu dira museoan.

Ile-apaindegi berria

Ile-apaindegi bat itxi eta bertze bat ireki da herrian. Urritik aitzinera Errekamari ile-apaindegia itxi da eta hau zegoen tokian, Martinean, Miren ile-apaindegi berria dugu orain. Lehengoarekiko desberdintasun batzuk ditu: emakumeentzako izateaz gain, gizonendako ere eskaintzen duela zerbitzua. Gainera, bertzelako lanak ere



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Akelarrea antzeztu dute Gironan

Akelarre Elkarteak antzerki taldeak bertze emanaldi bat eskaini du, aldi honetan Gironako San Joan Les Fonts herrian. Urriaren 4 eta 5eko aste honetan Sorginkeria Feriala egin zen, eta ekitaldien artean, larunbat gauan herriko plazan akelarre bat egingen zela programatuta zegoen. Eta horixe izan zen antzerki taldearen lana: txalaparta, sua eta musikaren bidez erakustea zer izan zen, euren ustez, garai bateko Zugarramurdiko akelarre bat.

egiten dira: rastak, estentsioak... Orduetgia hau da: 9:00etatik 13:00eta-

ra (astelehenean izan ezik), eta 15:00etatik 19:00etara (larunbatetan

izan ezik). Astelehenean 16:00etatik 20:00etara egonen da zabalik.



suteia

igogailuen instalazioa

Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDÓ (Na)
Tel. Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
suteia@suteia.com



Ofertan: guztiak koordinatuz eta proiektuaren ardura hartuz, zure igogailu intelektualen diruguz.

Okindegia Jatetxea

Uxoa



OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitate parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ugi-labean erretu,
BOXO BOXOA!



Ordoki Industriadia
Tfn: 948 453 403
01713 ARIZKUN

ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK

Parrillan egindako haragi eta arrainak

Tel: 948 453 410 Fax: 948 453 376 - ARIZKUN



Elizondoko feriak 08

URRIAK 24 • 25



REPSOL



PEDRO GARMENDIA

zerbitzu estazioa

Gasolina eta Gasoila
Presio bidezko garbiketa
Garbiketa automatikoa
Olio eta lubrikatzaile salmenta

Kalefakziorako gasoila
etxez etxe banatzen da

948 580 309 • ELIZONDO

BENAR
ileapaindegia



Braulio Iriarte, 58
Elizondo Tel. 948 452 467

**ESKISAROI
JATETXEA**



Jaime Urrutia • Tfnoa: 948 580 013
ELIZONDO

MARTIN ARRAZTOA

- Bizikleta, Moto eta
motozerra salmenta
- STHIL motozerra eta
desbrozadora agentzia

Santiago, ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 137

**ESTIBALIZ
ESTETIKA ZENTRUA**

DIODO LIGHT SHEER
LASER BIDEZKO DEPILAZIOA

PROFESIONAL SANTARIOEK
EGINDAKO TRATAMENDUAK

90% EFIKAZIA
SAIO GUTTITAN

Xalador, 14 • Elizondo • Tel: 948 581 360

MAÑONEA agentzia
aholkularitza eta aseguruak

Estrella aseguruak

Braulio Iriarte, 9 • ELIZONDO
Tel: 948 581 132

elicetxe
suministros electricos

material elektrikoak

ongi pasa feriak!

Tel: 948 581 261 • Faxa: 948 452 357
Santiago, 83 (Industrialdea) • ELIZONDO

BERTAN, Baztango Merkatari eta Zerbitzuen Elkarte Lan eta lan herriko dendak bizkortzeko

Laster bi urte beteko dira Bertan Baztango merkatari eta zerbitzuen elkar-
teak sortu zenetik. 2006ko azaroan izan zen. Geroztik hainbat eta
hainbat ekimen atera dituzte aitzinera: fideltasun txartelaren kanpai-
na, egutegiak, prestakuntza ikastaroak, zozketak, stock edo salgai-hon-
darren feriak, Kataluniara bisita hango esperientziak ezagutzeko, mer-
katu ttikia udan... Bi urte mugitu eta emankorrek izan dira, eta horrek,
fruituak eman ditu.

*"Elkartea sortzea bera hagitz garrantzitsua izan da. Zonaldeko merka-
tari eta zerbitzuen arteko harremana aberastu egin da eta elkarrekin
lan egitea aberasgarria da. Batek haragia, bertzeak zapatak eta ber-
tzeak betaurrekoak salduko ditu, baina oinarrian nolabaiteko batasun
bat dago eta zonaldeko beharrak orokorrak dira".* Balorazioa, beraz,
positiboa. Hitz horiek erabili ditu **Isabel Gonzalez** elkarteko idazkariak
bi urte hauen balantze bat egiteko eskatuta. Hasiera batean, gutti ba-
tzuen ideia zena indartzen joan da eta gaur egun 75 bazkide izatera
iritsi da Bertan. Denen gustua egitea, ordea, ezinezkoa da. Eta hori da
idazkariak elkarlanean aritzeari topatu dion alde negatibo bakarra:
*"gauzak pertsonalizatu egiten dira batzuetan. Zuzendaritza elkarteko
gehiengoarengana ailegatzen saiatzen da, baina zaila da".*

Denetariko ekimenak

Elkartea sortu eta berehala Egu-
berrietako kanpaina abiatu zuen
Bertan elkarreak, bezeroen fidel-
tasuna saritzeko. Jende andanak
parte hartu zuen eta gustura gel-
ditu ziren elkartekideak. Sei hila-
bete baino ez ziren pasatu stock
edo salgai-hondarren lehendabi-
ziko feria antolatu zuten arte. Or-
duan ere jendearen erantzuna era-
batekoa izan zen. Geroztik biga-
rren edizio bat ere egin da, eta ho-
netan ere lagun aunitz erakarri zi-
tuen azokak.

Urteen joanean dena alda-
tzen da, bezeroarekiko tra-
tua, erosteko zein saltzeko
modua, negozioa antolatze-
ko era... Horren harira, **pre-
stakuntza ikastaroak** ere egin
izan dituzte Bertanekoek.
*"Negozioan lanean urte au-
nitez eramanagatik beti ikas-
ten da zerbait, birziklatu egin
behar da eta ikastaroak on-
gi etortzen dira",* dio Isabe-
lek. Bartzelonan ere ibili zi-
ren Zuzendaritza Batzorde-
ko zenbait kide, **Bartzelona,
Terrassa eta Granollers** hirie-
tako merkatari elkarreen es-

perientziak gertutik ikusten. Ba-
koitzaren egoera eta errealitatea
desberdina izanen da, baina ez-
bairik gabe, eredugarriak izan dai-
tezke.

Eta Bertanen kasuan halaxe izan
zen: *"bertzelako hiriak dira, in-
dustrialde aunitz dituztenak, bai-
na bidaia hartatik gauza interes-
garri aunitz ekarri ziren",* dio Ber-
taneko idazkariak.



APRILA | ABRIL | 2008

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Logos of various organizations at the bottom: Euzko Lehen Banderak, Euzko Lehen Banderak, Euzko Lehen Banderak, Euzko Lehen Banderak, Euzko Lehen Banderak, Euzko Lehen Banderak.



Aipatzeko bertze egitasmoen artean daude egutegia eta udan egin zuten merkatu ttikia. Joan den urtean, **2008ko egutegia** Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko etxetan dohainik banatu zuten. Aurtenera, abian dute egutegiaren ekimena. **Merkatu ttikia**, berriz, aurtengo udan egin zuten estreinakoz. Turismoari begira zabaldutako zerbait izan zen, eta merkataria eta zerbitzu *"gutti animatu arren, esperientzia positiboa"* izan zela iritzi dio Isabelek.

Hilean guttienez lau bilkura

Ilusioa eta denbora. Horietxek gaikoak. Azken finean, Zuzendaritza Batzordean egoteak norbere negozioari denbora kendu egiten dio, baina *"denbora atera behar da, eta ilusioa edukitzea garrantzitsua da"*, adierazi digu Isabelek. Zuzendaritza Batzordea zazpi kidek osatzen dute: Unai Arriaga lehendakariak, Marisa Tena lehendakariordeak, Isabel Gonzalez idazkariak, Angel Arraztoa diruzainak eta Javier Pina, Asun Irigoien eta Neli Yanci batzordekideak. Hilean lau bat bilkura egiten dituzte, *"batzuetan zazpi ere bai, egiteko dagoenaren arabera"*, gaineratu du idazkariak.

Zuzendaritza Batzordea bi urterako osatu zuten eta beraz, heldu den azaroan berri egin beharko dute. Hala, kide berriak sartuko dira Batzordean baina oraindik ez dute erabaki nola egingen duten: *"agian, kide guztiak berriak sartu behar-rean eta batzortean hutsetik hasi behar-rean, orain arteko batzuk segitu egingen dute"*. Hori hausnartzen ari dira.

25. urteurrena Ogi pasa feriak!

libreria **nafarpress** liburudenda

Jaime Urutia, 43 • 948 580 902 • ELIZONDO

TEL 948 58 00 25

Kris ileapaindegia

Giltxaurdi kalea, 14 • ELIZONDO

ESKIZ INFORMATIKA ZERBITZUAK

Orain helbide berria: Maurizio eta Felix plaza ondoan **web orriak egiten ditugu**

Tel: 948 581 822 - Braulio Iriarte, 4 beheko - ELIZONDO

ERRETEGI - **KORTZAKAR** - LIGERDUTEGIA

ELIZONDO

Tel: 626 532 452

ASAROKO BIRIBIGIA MENU BEREZIAK

Goñi harategia

Santiago karrika
948 580 164
ELIZONDO

Urrekin egina Tartak eta pastelak Etxean egindako izozkia

Gozotegia **Malkorra**

Santiago, 15 - Tel: 948 580 061 • ELIZONDO



DATUCELAY

Ordenagailu bidezko direkzio zuzenketa
ITVrako prestakuntza
Mekanika
Elektrizitatea
Gasen aztertzailea

Santiago, 88 • ELIZONDO
Te..948 580 225



- Gorputz-larru edo ile arazoak badituzu?
- Bertze depilazio sistema eta gorputz tratamenduekin emaitza txarrak lortu dituzu?



BEATRIZ ESTETIKA ZENTRUAN AZKEN TEKNIKAK AURKITUKO DITUZU 20 URTEKO ESPERIENTZIAREKIN EMAITZAK ZIHIURTATU..

- Fotodepilazioa, elektrikoa eta laser depilazioa
- Fotoakne-dermatitisa-aknearen markak
- Fotogaztetzea-gorritasuna eta mantxak
- Gorputz tratamenduak: drenajea, masajeak, balneoterapia
- Loditasuna - zefulitisa - hanka, bular eta besoetako arazoak

TEKNIKA BERRIAK

- Larruazalaren ikerketa optsonalizatuaren bidez alergiak diagnostikatu eta ezabatzen ditugu.
- Argaltzen uzten ez dizuten elikagaiak bilatzen ditugu

Santiago 53 • ELIZONDO • T/F 948 580 283



ARIZKUN

BAZTAN

Epe laburrean,
2 eta 3 logelako etxebizitzak
eraikiko dira

* 126.000 €tik hasita.
Lehenengo 2 urteetan *Euribor + %0
bermatzen dugu

- BEZ sartu gabe.
- Nafarrako Rural Kutxak onartutako malleguerantz
- 2008an onartutako etxebizitzentzat



FAMILIA BAKARREKO ETXEAK LASTER ERAIKITZEN HASTEKOAK

- Partzela pribatuak 500m²tik hasita
- 2 Etxebizitza aukeran

ELIZONDO

BAZTAN

Pisuak eta apartamentuak salgai trasteleku eta garajearekin. Sartzeko prest izanen dira laster.

Elizondon pisuak errentan hartzeko, eta erosteko aukerarekin. Eskatu informazioa gure bulegoan.

Lokal komertzialen salmenta



Promociones
Lindutx Baztan, S.L.



Baztan Berri Plaza, 6 behea 31700 Elizondo • T. 948 580 344 M. 676 509 312
info@lindutx.com • www.lindutx.com

Arraiozen merkataritza gune bat? Ez, eskerrik asko.

Arraiozen egitekoa den merkataritza gunea. Horixe da Bertan merkataritza eta zerbitzuen elkartean orain duten kezka iturri nagusia. *"Egin eginen da, sarbidea egina baitago, baina nola geldituko da? Zer gertatuko da?"*. Zalantza da nagusi. Kontua da etorkizuneko merkataritza gunera sartzeko biribilgunea eraiki dutela. Jakina da merkataritza gune haundiek ez dietela mesederik egiten herriko saltoki ttikiei. Isabelen hitzetan, *"mehatxua da azken batean"*.

Konpetentzia non paratzen den, horrek ere eragina du merkataritza eta zerbitzuen egunerokoan. Nafarroako Komertzioaren Federazioak bere garaian erran zuen, *"merkataritza gunea Elizondotik kanpo egitea hanka-sartzea litzateke, komertzioaren deslokalizazioa eragingoa bailuke. Elizondon egokia-goa litzateke, tokiko komertzioak bultzatzeko"*. Iritzi berekoak dira Bertan elkartean ere. *"Elizondon paratzeak konpetentzia eginen luke, baina agian indarberitzen lagunduko luke. Arraiozen egitea, ordea, Elizondo bezalako merkataritza gune batetik bortz kilometrora, ez da mesedegarria. Komertzioak Elizondon biltzen dira"*. Beldur horren aitzinean, badute itxaropen apurrik ere. N-121A errepideko obrak egindakoan jende gehiago hurbil daitekeela pentsatzen baitute. *"Belaten obrak egin zirenez geroztik, aunitzez ere jende gehiago etortzen da Iruñea aldetik"*, dio Gonzalezek. Dena den, argi dute hori euren esku dagoe-la: *"guk erakarri behar dugu jendea"*.

Jaime Urrutia karrikako obrak ere hika-mikaren erdian

Baztango Udalak Jaime Urrutia karrikari oztopo arkitektonikoak kentzeko dirulaguntza jaso du, eta urtea bukatu baino lehen, espaloien altuerara igoko du karrika. Dagoeneko esleitu ditu lanak Udalak, eta 96.683,96 euroren truke eginen dira. Oinezkoentzako eta autoentzako bidea izanen da, orain bezala, baina oraindik ere hainbat galdera daude airean. Udalak merkataritza gungara jo du iritzi eske, eta denetariko iritziak topatu ditu. Behin obrak egindakoan erabilpena nolakoa izanen den dute orain eztabaidan. Autoa uzteko modurik izanen den ala ez dago erabakia. Jaime Urrutiako merkatariek ahal den tokietan behintzat autoek geldialdi laburrak egiteko aukera izatea nahi dute. *"Autoa ez dadila egun osoan hor egon, baina guttienez erosketak egin eta berehala joateko aukera izan dezatela bezeroek"*, dio Gonzalezek. Ikusi egin behar, beraz, zer gertatzen den. Udalak esku artean dituen proiektuak aipatu digutula, erran, aparkaleku berria eraikitzeke asmoa ere baduela, eta hori, noski, ongi hartu dute merkatariek.

Etorkizunera begira, zer?

Hemendik urte hondarrera begira egiten dituzten lanen artean, **2009ko egutegia** banatzea dago. Horrekin batera, garaia ailegatzearekin batera, Eguberrietako Kampaina abiatuko dute. Tartean, **Zuzendaritza Batzordea** berriko dute. Batzorde bakoitzaren esku dago elkartea nondik bideratu behar duen erabakitzea, eta beraz, orduan jakinen da zein ekimen abiatzen dituen. Bi urte hauetan lan egin dutenek bidea markatua utzi diete, bederen.

POTTOKI

Siletak · Sehaskak
Kotxerako suliak
Lehenagako jostailuak
Edretoi eta koskar-babeak
Kotxeendako zakuak
Haur-suliak · Oporiak
Jaietze zerrendak

Dastanberri Plaza, 5 - behea
51700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfno: 948 581 983
www.pottoki.com
info@pottoki.com
Astelehenetik larunbatera:
9:50 - 15:50
16:50 - 20:00

lilura

Rosa Serrano, 17
DONETZEBE
948 451 951

ferreteria
Quevedo

TXERRI HILTZEAN ERABILTZeko TRESNAK

SARRAILAGINTZA ZERBITZU BERRIA

Santiago 31 · ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 234
Faxa: 948 581 210



Argazkia:
Alicia del Castillo

onegin
Herbodietética Ekodenda
Jaime Urrutia, 26, behea • ELIZONDO • 948 581 932

Jaimerena
Ileapaindegia
GIZONEZKOAK
EMAKUMEZKOAK
ESTETIKA
SOLARIUM-A
Jaimerena
Tel. 948 581 273 • Santiago, 19 - behea - ELIZONDO

ANZABAL
AGENTZIA
Borden salmenta eta etxeen alokairua
Zurich Aseguruak
Lan aholkularitza
Aholkularitza fiskala
Inmobiliaria
Gestoria
Santiago, 15 • ELIZONDO
948 580 804

CARNICERIA
Esarte
HARATEGIA
Jaime Urrutia, 35 • ELIZONDO
Tfnua: 948 580 128




Baserrian duten funtzioa aldarrikatu dute 120 emakumek Bertizen

Emakume Baserritarren estatu mailako topaketa egin dute irailaren 27an eta 28an

Nekazal Sindikalismoa eta Emakumeak: Aukera bat. Lelo horrekin emakumeak betidanik baserrian izan duen eta duen paper garrantzitsua aldarrikatu zuten irailaren 27an eta 28an Bertizko Natur Parkean egindako Emakume Baserritarren Topaketan. Nafarroako EHNE sindikatuak eta COAG erakundeak antolatutako ekimenaren XVII. edizioa izan zen, eta estatu mailako topaketa izaki, espainiar estatuko hainbat txokotatik etorritako emakume baserritarrak hurbildu ziren; guztira 120 inguru.

"Beti erran izan da gizonezkoa gehiago aritu dela baserriko lanetan. Baina emakumea bizitza guztian aritu da, bai baserrian eta bai etxean ere. Kontua da hori ez dela baloratua izan". Halaxe azaldu digu **Maidar Azkarate** Anizko Jauregia gasnategikoak. Oieregin egindako topaketan parte hartu zuen berak ere. Gero eta gehiago ezagutarazten ari dira emakumeak, baina halere, oraindik aitzinetik bide luzea dagoela nabarmendu zuten Bertizen. COAG erakundeko Belen Verdugok, erraterako, oraindik emakumearen papera "guttiegi" baloratzen dela adierazi zuen, "bai baserri munduan, eta bai gizartean ere". Horrez gain, multinazionalen "gehiegikeriak" salatu zituen, eta "gehiegizko espekulazioa" egiten dituztela: "elikagaiak dirua eta dirua irabazteko merkatzia bezala baino ez dituzte ikusten", aipatu zuen Verdugok.

Emakumezko eta gizonezkoen berdintasuna aldarrikatzearen batera zera gogoratu zuten: "nekazaritzan lan egiten duten pertsonen %50a emakumeak dira baina ez gaude nekazaritzako erakunde, elkarte eta kooperatibetako karguetan eta potentzial galtzea oraindik nozitzen dugu".

Topaketa estatal honen aitzineko edizioa Madrilen izan zen eta aurtengoa egiteko Erronkari eta Bidasoaldea ziren bi hautagaiak. Azkenean eskualdean egitea erabaki zen, Azkarateren hitzetan, "hemen ere emakume baserritar dezente dagoelako".

Bi egunetako topaketa ekitaldiz beterikoa izan zen eta denetarik egiteko aukera izan zuten bildutako emakumezko baserritarrek. Hitzaldietan ere aukera zabala eduki zuten: **Carmen Freire** Galiziako Sindicato Labrego Galegoko idazkari nagusiarena; **Alicia Stürtze** soziologo eta idazle gipuzkoarrarena; **Isabel Lisa** Aragoiko UAGA sindikatuko ki-dearena... Horiez gain, eztabaidak, tailerrak, otorduak elkarrekin, an-



tzekiak eta Baztan eta Ultzama-ko bi ustiagietara bisitak egin zituzten. Horrelako topaketak egitea ongi ikusten du Anizkoak, "kanpoko esperientziak adituz beti ikasten delako zerbait eta biharko egunean bertzeak errandakoa baliagarria izan daitekeelako guretzat". Aldarrikapena, beraz, argia: "baserritarren sektore honetan emakumearen parte-hartzea eza-gutzera eman eta baloratua izatea", dio Jauregia gasnategikoak.

Betidanik baserrian egin duzu lan?

Ez, baina betidanik ezagutu dut mundu hau. Aitaxik behiak izaten zituen, eta aitak ere bai, baina lan hauetan ez nintzen aritzen. Duela lau urte gasnategia egin genuenean orduan hasi nintzen hemen lanean. Hiru senide gara gu, eta hemen gelditu eta gasnategia egitea erabaki genuen.

Nola ikusten duzu baserritarren egoera?

Argi dago, gaur egun nahiko gutti gelditzen direla. Orain dela urte batzuekin konparatuz, Anizen bertan guttiago dira. Nik uste dut poliki-poliki galtzen ari dela. Segituzenduten gehienak adinekoak dira edo baserrikoaz gain, bertze lan bat ere badutenak. Gazteak ez dut uste aunitz direnik.

Eta emakumezko baserritarren egoera?

Beti erran izan da gizonezkoa gehiago aritzen zela. Baina emakumea bitzta guztian aritu da baserrian eta bai etxean ere. Bi lanak egin izan ditu berak, kanpoko eta etxekoa. Kontua da, ez dela baloratu. Baserrira aitzinera eramateko laguntza haundia eta zenbaitetan ezinbertzekoa andrearena izan da, baina inoiz ikusi ez den paper bat izan da. Gaur egun, gero eta gehiago ezagutarazten ari da emakumea eta horrekin gehiago baloratzen da bere lana.

Maider Azkarate



VITALICIO
ASEGURUAK
Nelli Yanci Berrueta
Aseguru eta Inbertsio aholkularia
oc.elizondo@mediadoresvitalicio.es
Tel-Faxa: 948 580 504 · Mug.: 649 947 182
Santiago, 56 B · ELIZONDO

caza y pesca
zagua
ehiza eta arrantza
Baztanbent plaza 2 Elizondo
948453099 686904427

INSTALACIONES
SASKAITZ S.L.
ingeniería
fontanería
calefacción
ETXEKO
INSTALAZIOAK
ETA
INDUSTRIALAK
**Komunen erakusketa
eta bulegoa**
Zaldubia Industrialdea, 2
31730 IRURITA
Tel.: 948 58 11 71
659 77 85 48
Fax: 948 58 07 82
saskaitz@terra.es
Orduetgia
09:00-13:00 eta 15:00-19:00

ARKUPE
boxotegi · kafetegia
· Tarta bereziak
· Etxeko izozkiak
· Arkupe txokolatea:
kakaotik egindako txokolatea
IRURITA · Tfnoa.: 948 452 021
ELIZONDO · Tfnoa.: 948 452 393

AROZ - BERRI

IRURITA
 ☎ 948 581021
 Fax 948 452103

ORKAIN
 ☎ 948 332617
 Fax 948 360924

ONGI PASA FERIAK

**BETIDANIK ETA BETIKO MODUAN
 ZURE ETXEBIZITZA**

J B Iturria
CONSTRUCCIONES

Babes ofizialeko etxebizitzak – UPT

Elizondoko Baztan Berri Plazan. 3 gela, garajea eta trastelekua,
 168.920€tik hasita eta BEZ barne. (28.106.087 Pta)

Apartamentu eta etxebizitza libreak

Elizondoko Santiago Karrikan, 173.643€tik hasita eta BEZ barne (28.891.800 Pta).

Lokal komertzialak, garaje plazak, nabe industrialak

Pisu eta eraikinen errehabilitazio eta erreformak, txaleten eraikuntza

Mendinueta, 6, behea, Elizondo • Tel: 948 580 304

ISO 9001
 BUREAU VERITAS
 Certification



Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

Inbertsio haundiak egin behar dira baserriko bizimoduak ongi funtzionatzeko?

Hori eskatzen dute. Behien kasuan, ezin da laupabortz behiekin bizi. Gaur den egunean, behartzen dute, nolabait errateko, inbertsio gehiago egitera. Zerbait haundia egin eta berritzera.



Oraindik gazteak zarete, baina zuen etxean baserriko lanak izanen ote du segida?

Berriak gara eta ilusioarekin hasi gara. Ez dakigu noiz arte, momentuz kontent gaude eta guk aitzinera segituko dugu.

Zure ustez, aunitz aldatzen ari da baserriko bizimodua?

Gauza guztietan bezala, bai. Teknologia berriak sartzen dira eta eskuz egin behar izaten ziren gauzak alde batera utzi dira, eta teknologia sartu da. Baserritarrentzat ongi heldu da hori eta produktzerakoan ere aitzineratu egin daiteke teknologia berriekin. Eskuz egiteko ohitura hori gibelerat gelditu da bai sektore honetan eta bai bertze sektoreetan ere. Denak bezala, baserrian ere gauzak aitzinera doaz.

Makineria eta modernizazioak lagundu al dio baserriko lanari?

Nik uste dut baietz. Ikustea bertzerik ez dago. Lehen behiak eskuz jezten ziren; orain makinak daude. Robotak ere atera omen dituzte eta aitzinerat doa dena. Horrelakoak erabiltzen badira, ongi-etorriak diren seinale. Lan ordu guttiago sartzen dira eta trankilago bizitzeko ongi heldu da.

Laguntzen al dizu EHNEen ego-teak?

EHNEen egoteaz gain, emakumeen lantalde batean sartuak gaude, nire kasuan, andreak sektore honetan zein paper duen ikusteko. Bilerak egiten ditugu eta edozein duda duzula ere, harat deitu eta

laguntzen saiatzen dira. Azken finean, paper aunitz egin behar dira eta beti gauza eta lege berriak ateratzen direnez, afera nola doan erakusten dute. Merezki duela uste dut.

Zergatik sartu zinen?

Etxekoak lehendik EHNEen sartuak zeuden, eta ni ere baserri munduan hasi nintzenean EHNEen sartu nintzen. Egia erran ez gara emakumezko aunitz joaten baina talde bat bildu gara eta dudak argitzeko baliagarriak dira lantaldeak, eta bertzeen esperientziak adituz beti zerbait berria ikasten da.

Gizonezko baserriar eta emakumezkoen artean desberdintasunik nabaritzen duzu sindikatu barrenean?

Nik ezin dizut aunitz erran, berriki afiliatua bainaiz. Beti gizonaren papera izan da ezaguna, baina emakumea poliki-poliki ateratzen ari da eta alde horretatik gizonen aldetik problemarik ez dagoela iruditzen zait eta denen aldetik ongi ikusia dagoela. Denok behar berdinak ditugu.

Emakume baserriarren topaketak garrantzitsuak dira?

Bai hala da. Estatu mailako topaketa bat izanik, bakoitzak bere lurraldetik bere esperientziak ekartzea aberasgarria da. Hemen Euskal Herrian, Galizian edo Andaluzian esperientziak ez dira berdinak eta beti ikasten da horien-gandik zerbait. Biharko egunean agian bertzeak errandakoak balio dezake. Interesgarria da.

Zer aldarrikatu duzue?

Sektore honetan emakumearen parte-hartzea baloratzea eta eza-gutzero ematea. Gu ere hor dardela jakinaraztea.

Emakumeak animatuko zenuzke baserrian lanean has daitezen?

Baserrian lanean hasten den emakumeak lehenagotik badaki zer den mundu hori. Gauza guztiekin bezala, egiten ahal da. Animatua eta ilusioarekin egonez gero, aitzinera aterako da.

ZER GALAN 
aholkularitza

Baztan berri Plaza, 6 • ELIZONDO
T. 948 581 300 • F. 948 580 648
info@zergalan-baztan.com



Enpresendako aholkularitza
zerbitzu integrala

- Fiskala
- Kontablea
- Laborala
- Autonomoak
- Enpresa berriak sortzea

Albaitaritza



Tfnoa.: 948 580 980 www.albaitaritza.com



www.albaitack.com Tfnoa.: 948 506 169

Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuek **Materialak**

Estiba **Edozein eta arazteentzako erreak** **Fazia**

Xaboi eta desinfectatzaileak **Osagarri mineralak**

Albaitari zerbitzua



ALBAIKIDE

www.albaikide.com

Tfnoa.: 902 169 169



PVC eta aluminio aroztegia

Neurrira egindako leihoak
Diseinu eta modelo ezberdinak
Banakako soluzioak
Isolamendu termiko eta akustikoak
Energia aurrezpenak

Ordoki industrialdea • ARIZKUN
Tel. 948 453 259 • Fax. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa salmenta eta instalazioa



OBRA BERRIETAN ETA BERRIKUNTZETAN ESPEZIALIZATUAK

KULTURA

Hamasei bertsolari Iparraldeko Bertsolari Txapelketan

Lehen kanporaketa larunbatean Donibane Garazin



ttipi-ttapa

Iparraldeko Bertsolarien Lagunak Elkarteak azken urteetan egindako lanari esker aurtun, lehen aldikoz, Iparraldeko Txapelketa antolatu du. Udazken honetan hamasei bertsolari lehiatuko dira hiru kanporaketetan.

Txapelketa larunbatean, urriak 18, abiatuko da, Donibane Garazin jokatu den lehen kanporaketa. Saioa zinemaz eman izanen da. Bigarren kanporaketa Luhuson egingen da urriaren 25ean, Kultur Aretoan, eta azken finalaurrekoa azaroaren 2an Urdiñarbeko Udal Animazio Zentroan. Final handia, berriz, azaroaren 15ean jokatu da Jai-Alain.

Adin guztietako bertsolariak ariko dira lehia: **Mixel Aire Xalbador II.a** (Urepel, 1944), **Karlos Aizpurua** (Sara, 1971), **Xan Aikhat** (Maule, 1982), **Odei Barroso** (Urruña, 1988), **Maddalen Arzallus** (Hendaia, 1980), **Miren Artetxe** (Hendaia, 1985), **Amets Arzallus** (Hendaia, 1983), **Sustrai Colina** (Urruña, 1982), **Ekhi Erremundegy** (Baiona, 1989), **Gillen Hiribarren** (Itsasu, 1988), **Patxi Iriart** (Hiriburu, 1988), **Mizel Mateo** (Bidarrai, 1988), **Xumai Murua** (Azkaine, 1985), **Kristiñe Txoperena** (Hendaia, 1990), **Eneritz Zabaleta** (Baiona, 1984) eta **Egoitz Zelaia** (Hendaia, 1982).

Rural Kutxaren hipoteka-estaldura

BABESTU ZURE HIPOTEKA EURIBORRAREN IGOERAZ

Urtea	Euriborra (%)
2001	5.50
2002	4.50
2003	5.00
2004	3.50
2005	3.50
2006	3.50
2007	5.50
2008	6.50

RURAL KUTXAREN HIPOTEKA-ESTALDURAREKIN

zure hipotekaren **hilabeteroko kuantu egonkortasun osoa** bermatzen duzue, zuek aukeratzen duzun epean (3, 5 edo 7 urte), interes-tipoetan izaten ahal diren gorabeheren ondorioak saihestuz. Gainera, produktu berri honen abantaila guztiak zuretzat ditzaitezue **hipoteka kontratatuaren daukizun erantzule berrizain mantentuz**. Rural Kutxaren **Hipoteka-Estaldurak** gaur egun Hipoteka duten titularrak nahiz etorkizunean kontratatzeko asmoa daukatenak babesten ditu. Informa zaitez Nafarroako Rural Kutxaren bulegoetan.

nire aukera

www.ruralkutxa.com
Tel: 902 210 902

SENPERE

Ura eta Urdazuri ibaia dira zizelkarien lehen topaketako ardatz nagusiak

Obrak urri hondarrear estrenatuko dituzte Urdazuri bazterreko baratzean

Franck DOLOSOR

Urdazuri ibaiak kalteak sortzen ditu maiz, ura bere bidetik ateratzen delarik. Dena den, ura beharrezkoa da, eta aberastasuna eta bizia ematen du. Ideia hauek kontuan hartuz, zizelkarien lehen topaketa hasi da buruil hondarrear. Lehen hitzordu honetan, lau artistak parte hartzen dute: Jean Escaffre senperrak, Christiane Giraud uztaizarrak, Jean Jacques Abdallah okzitaniarrak eta Yann Liebard betroinak. Hiru gizonak Arudyko mar-

mola lantzen dute. Giraudek, aldiz, Larrungo harriarekin lan egiten du. Harriaren gainean Auxtin Zamora Senperreko olerkariaren testu bat zizelkatuko du gainerat Uztaizitzeko harri egileak.

URRIAREN 26A ARTE LANEAN

Buruilaren 29an hasi zen topaketa urriaren 26an bururatuko da. Lau artistak egun guziz ari dira lan eta lan Gantxiki kiroldegia ondoan. Lanak bururatuko dituztelarik, eliza ondoan eta Urdazuri



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Jean Jacques Abdallah okzitaniarra, Christiane Giraud uztaizarrak eta Jean Escaffre senperrak lanean ari dira egun guziz errebotea eta Gantxiki ondoan. Argazkian Yann Liebard betroina falta da egun hortan Bilboko Guggenheim erakustokia bisitatzen ari baitzen.

ibaiaren bazterrean sortzen ari den baratze publiko berria ezarriko dituzte lau obrak. Natura gelditu gabe mugitzen den bitartean, sekulan mugitzen ez diren harriek parke berria edertuko dute...

JEAN ESCAFFRE: ASPALDIKO ARTISTA

Jean Escaffre zizelkari senperrak Xerrenda aldean bizi da, Martixenea etxean.

Pariseko hiru eskolatan ikasi zuen bere lanbidea, Grande Chaumière akademian, Louvre eta Arte Ederren ikastetxeetan. 1973az geroztik, bere zaletasuna da espiritu garaikideen mugimendua aztertzea eta hori erakustea harriak landuz. Bere ustez, harriari ematen zaion golpe bakoitzean iraganaren parte bat erortzen da eta forma berria sor-

tzen da. Horrez gain, egurra eta marmola ere lantzen ditu. Iturriak eta hilharriak ere prestatzen ditu. Bere lanak Frantzia, Alemanian, Brasilen eta Japonian ikusten ahal dira. Duela hiru urte oroitari bat egin zuen Kanbon Michel Labéguerie horko auzapez eta euskaltzale zenaren omenez. Orain, bere azken lana Senperreko elizaren ondoan ezarriko du.

www.ttipi.net

ERREZETA BILDUMA
tradiziozko errezeta
gozagarriak



Bierreseneoa
OSTATU - JATETXEA
Jaki tipikoak - Etxeko giroa
Hurrengo sarrera | Tfno: 948 592 045
ORNOZ - MUGAIRI

MONTXO OSTATUA
Dantzarintzalek
2 km. tara
TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA - URDAZYBI
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

HEBRIKO
ITZULO
EDERTZEA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Maixen eta Véronique
SARA

BURKAITZLA
- ostatu
- erretoria
Zugaburumandiko bidea, 3 km
948 599 280 - URDAZYBI

SEAT
VO
HYUNDAI
Audi
ZOANSA
MARKA GUZTIEN KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkalaga Industrialdea
LEZAMA (Santora, Boraki)
Tel: 948 625 666 - Fax: 948 625 506

SARA

Ibañeta antzerkia ikusgai izanen da igande honetan Lur Berri gelan


Karlomagnoaren tropen eta euskaldunen arteko guda antzeztuko dute 18 aktorek

Xan HARRIAGUE

Piarres Larzabalek idatzitakoa antzerki batean ikusteko aukera paregabea izanen da heldu den igandean. Paregabea, eta ezin dena huts egin momentuz bertze emanaldi bat baizik ez baitu aurreikusitako Haize Berri taldeak. Hura Anhaizen (Baxe Nafarroa) izanen da hilabete honetarako.

Antzerkia 17:00etan hasiko da Lur Berri gelan. Ander Lipus zuzendaritzapean 18 aktorez osatutako taldea arituko da. Ikastolako euskara taldeak antolatatu du gure hizkuntzaren erabilera sustatu nahian.

Nafarroa Karlomagnoaren tropek okupatzen



ARGAZKIA: BOB EDME

Aktoreak antzerkia aurkezten Baionan.

dutela gertatzen da Ibañeta. Batzuek okupatzailearen kontra egiten dute, eta bertzeek, berriz, harekin lan. 778.urtean euskaldunak Orreagan eskuratu zuten garaipenean oinarrituz, Aita Larzabalek 1968. urtean idatzi zuen, Frankismoaren kontrako euskal-

dunen erresistentzia armatua berpiztu zelarik. Aktoreen arabera, 40 urte beranduago istorioak gaurkotatzen diren itea dauka, haien ustez, euskaldunak ez baitute aterabide bat atzeman herri nortasuna galderari erantzun ahal izateko, eta oraindik ere borroka arma-

tuaren burrunbek segitzen dutelako. Lipusek dioenez antzerki proposa da egoerari buruz gogoetatzeko


Ikazkina Garbalan

Aitzineko alean iragarri bezala, aste honetan Garbalan egurikatza nola egiten den ikusteko aukera dago. Bi txondor egiten ari dira eta inguruko ikastetxeetako ikasleak ez ezik, nahi duten guztiak hurbil daitezke. Hailere, hasiera batean, Xalbat Biloriako ikazkina zen etortzekoa, baina azkenean, bertze bat etorri da, Koldo Aznarez. Honi buruzko xehetasun gehiago al dizkariko 4. eta 5. orrialdean aurkituko dituzue.

Aizpurua Bertsulari Txapelketan

Asteburu honetan abiatuko da Iparraldeko Bertsulari Txapelketa. Aurten lehendabiziko aldiz eginen da eta 16 bertsolarien artean Saran bizi den Karlos Aizpuruak lehiatuko du. 1971n Oiarzunen (Gipuzkoa) sortua da eta ekonomiako eta euskal filologiako ikasketak eginak ditu. 1998az geroztik, Ipar Euskal Herriko bertso-laritzan irakasle lanean ari da.

Urriaren 25ean Luhuson (Lapurdi) jotkatuko den bigarren kanporaketan arituko da Aizpurua. Herriko salan izanen da saioa, 17:00etatik aitzinera.



Gru T n l y T l
I CHE
M l r r k s. l.

2 UK ZE ITZU
EIL T KI N ET ETXE N

T SL KI U E , N STI ET
I UNG S IT LET TI KE ZEIN HE IET

L E K, HIL I K, ESKEL K,
E USKET K ET ZE ITZU S & I K

r S N J SE EIL T KI	3 7
n zt S N E EIL T KI	3 7
El z n FUNB I ZI N T N T I ZI N	5 1 5
L tz LEITZ K EIL T KI	3 7
L s k LES K K T N T I	3 7



EZKONTZAK

Alfredo Elortza Inda eta **Idoia Rekarte Oteiza**, Donamariakoak, irailaren 29an Donamarian.

Dabid Mugika Azkarraga eta **M^a del Carmen Bertiz Subizar**, Elizondokoak, irailaren 20an, Elizondon.

Raul Robledo Baz eta **M^a Belen Paccini Duarte**, Lesakakoak, irailaren 20an, Lesakan.

Juan Carlos Tello Gartzia eta **M^a Purificacion Loigorri Arruabarrena**, Lesakakoak, irailaren 24an, Lesakan.

Julio Rodriguez Dominguez eta **Rosa M^a Enrique Sanchez**, Irungoak, irailaren 27an Lesakan.

Miguel Jose Oiartzun Arangoa eta **Nagore Hernandez Cabeza**, Baraibar eta Leitzakoa, irailaren 20an Leitzan.

Miguel Angel Zubitur Villabona eta **Izaskun Arrizurieta Eskudero**, Leitzakoak, irailaren 27an Leitzan.



SORTZEAK

Elisa Iturralde Olabe, Iruritaikoa, irailaren 18an.

Naiara Amenabar Zapata, Arizkungoa, irailaren 18an.

Luis Fernando Antxorena Jima, Zigorakoa, irailaren 22an.

Ane Mezkiritz Orube, Arizkungoa, irailaren 23an.

Ainhoa Mezkiritz Orube, Arizkungoa, irailaren 23an.

Saioa Garate Apeztegia, Oronoz-Mugarikoa, irailaren 23an.

Mikel Sansiñena Larramendi, Elizondokoa, irailaren 26an.

Ganix Azkarate Eraso, Doneztebekoa, irailaren 16an.

Anartz Lujanbio Narbarte, Goizuetaikoa, irailaren 25ean.

Ibai Lekuona Huizi, Lesakakoa, irailaren 23an.

Intza Altxu Mitxelena, Igantzikoa, irailaren 27an.

Beñat Iparragirre Gomez, Berakoa, irailaren 19an.

Julen Lazkano Altzuri, Sunbillakoa, uztailaren 16an.

Isaac Rodriguez Iratzoki, Zugarramurdikoa, irailaren 25ean,



HERIOTZAK

Julia Olite Arraras, Elizondon, irailaren 27an, 89 urte.

Isabel Tolosa Zapirain, Berakoa, irailaren 27an, 83 urte.

Alvaro Monzon Uranga, Elizondokoa, irailaren 28an, 61 urte.

Pedro Legasa Olaetxea, Lesakakoa, irailaren 28an, 66 urte.

Antonio Pikabea Irigoien, Lesakakoa, urriaren 2an, 82 urte.

Jose Antonio Perez Garcia Kanario, Berakoa, urriaren 4an, 67 urte.

Mari Arrieta Berra, Lesakakoa, urriaren 8an, 81 urte.



Anastasia ERRANDONEA ERRANDONEA

Beran, 2007ko urriaren 16an

I. URTEURRENA

Hostoak arboletatik erortzen diren bezala udazkeneko egun batean joan zinen Geroztik gure bihotzak egunero zure oroitzapenarekin betetzen dira.

ZURE FAMILIA



Jose Angel 'KOTTO' ALTZUGUREN PERURENA

Beran, 1966-III-03/Sorian, 2005-X-31

III. URTEURRENA

Eman zenuen bizia euskaragatik, herriarengatik, Euskal Herriagatik, eta azken bederatzi hilabeteetan familia eta lagunei eman zenien bizia, joan arte.

ETXEKOAK

Rekordatorioak

egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta tesluarekin prestatua

KULTURKARI • Andulzetza 12, Etxalar
Tfnos: 948 63 54 58

MENDIA-HERRI KIROLAK

Mendian eta koxkor-biltzen bi txapel jantzi ditu egun berean Fernando Etxegaraik

Mendi lasterketetako Euskadiko Kopa eta Nafarroako Koxkor-Biltze Txapelketa irabazi ditu

ttipi-ttapa

Egun borobila. Halaxe izan zen irailaren 27a Fernando Etxegaraik Berako kirolariarentzat. Bi txapel jantzi zituen egun berean: mendian lasterketetako Euskadiko Kopa jantzi zuen goizean Olazagutxin eta Nafarroako Koxkor-Biltze Txapelketa arratsaldean Igantzin.

LAUGARREN SAIOA OLAZAGUTIKOA

Lau proba puntugarri jokatu ondotik jantzi zuen Etxegaraik mendian lasterketetako

Euskadiko Kopako txapela. Azpeitian (Gipuzkoa), Baigorri (Nafarroa Beherea) eta Zornotzan (Bizkaia) jokatu ziren Kopako lehendabiziko hiru saioak. Hirurak irabazi zituen Etxegaraik. Olazagutxia - Urbasako mendian lasterketa izan zen jokatu beharreko azken proba, baina hemen, orkatila bihurritua izaki, ez zituen nahi bezala egin lanak. Hala ere, sailkapenean bortzgarren helmugaratu zen, 4:58ko denbora egin ondotik. Denbora guztiak aintzat hartuta,

Etxegaraik da aurtengo txapelduna.

IGANTZIN KOXKOR-BILTZEN

Arratsaldean, berriz, Nafarroako Koxkor-Biltze Txapelketa jokatu zen Igantzin eta orkatila bere onenean ez izanagatik ere, aitzineko aldietan bezala, Etxegaraientzat izan zen garaipena. Aurtengo Euskal Herriko Txapelketa ere berak irabazi zuen, eta Igantzin Nafarroakoa bereganatu zuen. 50 koxkor-biltzeko sei minutu eta 4 segundo behar



UTZITAKO ARGAZKIA

Hainbat eta hainbat dira Fernando Etxegaraik beratarak aurten irabazi dituen lasterketak. Horien artean argazkiko Camille Extreme proba gogorra.

izan zituen beratarak.

Bigarren sailkatua Patxi Irazoki igantzian izan zen (06:08) eta

Andoni Lasaga etxalartarra laugarren gelditu zen sailkapen nagusian (06:41).

TXIRRINDULARITZA

Profesionaletarako saltoa egingen du Joseba Larralde heldu den denboraldian

Afizionatuen mailako azken lasterketak Bidelan-Kirolgi taldean egin ditu Berako txirrindulariak

ttipi-ttapa

Bidelan-Kirolgi taldean utzi eta Orbea-Oreka SDA taldean ariko da hurrengo denboraldian Joseba Larralde Berako txirrindularia. Hala, afizionatuen maila utzi eta profesionaletan ariko da, Euskaltel-Euskadirentzat lanean ari den Orbea-

Oreka SDA taldean, Alvaro Gonzalez de Galdeanoren aginduetara.

DENBORALDIKO ERREBELAZIOA

Bikain ibili da denboraldi honetan Joseba Larralde. Bera izan dira, beraz bertze, 23 urte behetikoetan Nafarroako

txapela, eta Bidasoako Itzulian lehenbiziko euskaldunaren maillota jaso zuen. Horrez gain, beretzat izan da *Diario de Noticias* egunkariak urtero ematen duen Challenge Citroën San Migel saria. Denboraldiko Nafarroako txirrindulari afizionaturik erregularrena



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Orbea-Oreka kamiseta jantziko du Larralde hurrengo denboraldian.

saritzen dute aipamen honekin eta bigarren sailkatuari alde handia atez

raz etxeratu du Larralde saria. Guztira 467 puntu eskuratu ditu.



Iñaki BEREAU

Euskal Herriko txapelkun lasto altxatzen

ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Aitor AROTZENA

Duela 13 bat urte hasi zen Igantzioko herri kirol taldea lanean. Lehenbiziko urte haietan, Eduardo Eugik hiruzpalau aldiz irabazi zuen Nafarroako lasto altxatze txapelketa eta ezezagun xamarra zen kirola zabaldu zuen gure inguruan. Geroztik, ordu aunitz eman dituzte entrenatzen Igantzioko kirolariek. Horren erakusgarri, herriko bestetan jokaturako Euskal Herriko finalean podiumeko hiru koxkak igantziarrek bete zituztela: «Ez genuen pentsatzen hiru lehenbizikoak igantziarrek izaten ahal zirenik—dio Iñaki Bereau txapelkunak—Euskal Herrian maila handia delako eta bertze edozein herrialdekoa sartzan ahal da tartean. Nik irabaztea ere ez nuen pentsatzen. Hagitz polita izan zen gainera, lehia estua izan zen, Karlos 30 zentesimatara gelditu zen eta Oskar ere hagitz ongi ibili zen, denak kontent gelditu ginen. Herrian irabazteak ere ilusio gehiago egiten du».

Garai batean lasto altxatzea bizkaitarren kontua zela erraten zen, bai-

na orain igantziarrena dela erraten ahal da. «Aurtengoa ikusita bai, lehenbiziko hirurak igantziarrek, laugarrena bizkaitarra eta bosgarrena ere igantziarra. Finalean hamasei lagun ari ginela kontuan hartuz, zerbait erran nahi du. Iazko txapelketan ere bortz lehenbizikoetan lau igantziar sartu ginen... Euskal Herrian lau igantziarrek goi mailan gaudela ikusi da».

ORDU ETA URTE AUNITZEKO LANA

Txapel eta podium horien gibelean, ordu eta urte aunitzetako lana da goela aipatu digu Iñaki Bereauk: «Gu hasi ginela badira 13 urte eta urtetik urtera gehiagora joan gara. Hasiera zaila izaten da, ez duzu indarririk, ez teknikarik, eskuak erretzen dituzu... baina hobetzen duzula ikusten duzu,

«Laurek elkarrekin entrenatzen dugu, astean bizpahiru aldiz. Eskuak segidan erretzen direnez, bi egun utzi behar dira entrenamendutik entrenamendura»

«Indarra, teknika, altuera eta pisua, denak behar dira marka onak egiteko»

- Iñaki Bereau igantziarrek bere sorterrian, Igantzin irabazi zuen lehen aldiz Euskal Herriko lasto altxatze txapelketa irailaren 28an.
- Podiumeko hiru koxkak igantziarrek bete zituzten: Iñaki Bereauren ondotik, Karlos Sein sailkatu zen eta hirugarren Oskar Telletxea izan zen. Iaz Euskal Herriko txapelkun izan zen Xabi Seinek bosgarren postua eskuratu zuen.
- Euskal Herrikoa ez ezik, Nafarroako eta Zazpi Herrialdeko txapelak ere irabazi ditu aurtan Bereauk, urte borobila osatuz: «Urte bati ezin diot gehiago eskatu» dio. Bi txapel hauek hirugarren aldiz daude igantziarren buruan.

entrenamendu bereziagoak egiten dituzu...». Bertze herri kirol aunitzetan bezala, indarra ez ezik teknika behar beharrezkoa da lasto altxatzeko ere. «Ona izateko bi gauzak behar dira, teknika eta indarra. Indarra aunitz izanda ere, teknikarik ez baduzu, ez duzu zer egiterik, fardoa hagitz exigentea delako, segidan nekatzen zara. Teknika eta indarra izanez gero, bi minutu horiek ongi aguantatzen dituzu. Gero marka ona egin nahi baduzu, indarra, teknika, altuera eta pisua ere izatea komeni da. Denen konbinazioa behar da».

Bere burua nekatua eta uzteko gogoekin somatzen zuenean ailegatu zaio Euskal Herriko txapela Iñakiri eta segitu baldin badu, bere familiari eta neskalagunari esker izan dela azpimarratu nahi izan du. Aurtan, hiru txapel irabazita, lanean segitzeko gogoia berritu zaio: «Nahiko agobiatua zauden momentuak izaten dira, uzteko gogoia, baina aurtengoa ikusita segitu beharko dugu! Hor aitzinean segitzea gustatuko litzaidake eta hemendik urte batzuetara, lasaia hartu».

AIZKORA

Floren Nazabalek laugarrenez jantzi du maila nagusiko Nafarroako txapela

Donato Larretxea bigarren sailkatuari bi minutu eta 54 segundoko aldea atera dio

ttipi-ttapa

Floren Nazabalek laugarrenez irabazi du Nafarroako Maila Nagusiko Aizkora Txapelketa, urriaren 5ean jantzi zuen txapela jaioterrian, Etxarri-Aranatzen. Lehen enborretik hartu zuen probaren burua, eta horrela segitu zuen bukaera arte. Azkenean, 2 minutu eta 54 segundoko aldea atera zion Donato Larretxea bigarren sailkatuari. 26 minutu eta 32 segundu behar izan zituen Nazabalek lana bukatzeko eta 29 mi-

nutu eta 26 segundu Larretxeak. Hemezortzigarren Nafarroako Txapelketak, ez zuen neurritz kanpoko lehiazirik izan lehen posturako, Nazabalek hirugarren egurrerako erakutsi baitzuen txapela jantzeko moduan ari zela.

Hirugarren postua lortzeko lehia izan zen. Miel Mindegiari lehor samarra atera zitzaion bigarren oinbikoa, eta bi ezpaletara ebaki behar izan zuen. Egoera hori baliatu zuen Juan Jose Lopezek, eta az-

ken aitzineko enborrean, 16 segundoko aldea atera zion Lopezek Mindegiari. Azkenean, hirugarren sailkatu zen Lopez. 30 minutu eta 29 segundu behar izan zituen lanak bukatzeko. Mindegia laugarren izan zen 31 minutu eta 4 segunduko denborarekin. Eta Antonio Senosian bortzgarren sailkatu zen. 38 minutu eta 31 segundutan bukatu zuen lana.

Aizkolariek hamar pago-enbor ebaki behar izan zituzten: lau



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Donato Larretxea bigarren postuan gelditu zen, irabazlearengandik ia hiru minutura.

kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko. Lehen aldiz txapelketa ofizial batean aizkolarri bakoitzak bere laguntzailea eduki zuen ondoan, eta hori na-

barmentzeko modukoa izan zen, goiko mailakoak izan arren, aizkolariei mesedea egiten baitiete. Euskal Erriari pilotalekura 300 lagun hurbildu ziren.

Igandean Altsasun jokatu den III. Mailako Euskal Herriko lehiaren eskualdeko lau aizkolarri

Guztira sei aizkolarri ariko dira, eta tartean daude Erasun, Castro, Pellejero eta Mindegia

ttipi-ttapa

Igande honetan, urriak 19, jokatu da III. Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketako finala. Guztira sei aizkolarik neurtuko dituzte indarrak, finalaren aitzinetik jokatu diren hiru kanporaketako bi lehendabizikoak. Seitik lau es-

kualdeko aizkolarriak dira: Ander Erasun aurtiztarra, Asier Pellejero aresoarra, Raul Castro urroztarra eta Patxi Mindegia zubietarra. Eurekin batera finalean izanen direnak Aitzo Atutxa (Dima, Bizkaia) eta Aratz Muger-tza (Mutriku, Gipuzkoa) dira.



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Urrozko plaza jendez beteta zegoela eskaini zuten euren saioa aizkolariek.

AZKEN KANPORAKETA URROTZEN

Herriko San Migel besten barne, Urrotzen erabaki ziren igandeko finalean izanen diren azken aizkolarien izenak. Guztira 11 aizkolarri aritu ziren, hiru txan-

datan banatuak. Bakoitzak launa kanaerdiko ebaki behar izan zituen.

Castrok eta Mindegiak egin zuten denborarik onena, 10:27 eta 10:39, hurrenez hurren. Gainerakoan,

Urrotzen aritu ziren aizkolarien artean Jexux Etxeberrria (Beintza-Labaien) eta Xabier Ariztegi (Etxalar) daude. Beintza-Labaiengoa hirugarren sailkatu zen eta Xabier Ariztegi etxalartarra zortzigarren.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

IKASTAROAK

LESACA

Azaroaren 4tik 27ra, enpresa kudeatzen ikasteko ikastaroa. Astearte eta ortzegunetan, 16:30etik 20:15era. Izena emateko azken eguna urriaren 24a, 948 625122 telefonoan.

ELIZONDO

Osailaren 24ra, asteartero eta arratsalde, 5 eta 14 urte arteko haurrentzako plastika ikastaroa Arizkunenean.

BERA

Urriaren 18an eta 25ean, komikigintza tailerra. Bortzirietako Euskara Man-komunitateak eta Topaguneak antolatuta.

ANTZERKIA

GOIZUETA

Urriaren 25ean, *Salam* antzerkia eskainiko du TTR Teatro taldeak. 20:00etan Ganbaran.

SARA

Urriaren 18an, Ibañeta izeneko antzerkia, 17:00etan Lur Berri gelan.

KONTZERTUAK

ARANTZA

Urriaren 18an, Iddwac folk musika taldearen kontzertua. 20:00etan frontoian.

LESACA

Urriaren 25ean, Oreretako Haur Abesbatzaren kontzertua. 20:15ean San Martin Elizan.

IPUIN KONTALARIAK

BERA

Urriaren 31n, Ines Bengoaren eskutik, *Karabi-Karabi* haurrentzako ipuin kontalaria 18:00etan Liburutegian.

TELEBISTAKO TXOKOA



Udazkeneko feria eta azokak ttipi-ttapa telebistan ikusgai

ELIZONDOKO FERIEKIN HASIKO DA ITZULIA

Sasoa ailegatzearekin batera, etxeko produktu eta azindari onenak kalera ateratzeko ohitura dago eskualdean. Horren harira, antolatzen dira Elizondo, Doneztebe eta Lesakako feriak, Berako Lurraren Eguna, Arantzako Baserritarren Eguna, Goizuetako feria... Guztietara agertzea ezinezkoa da, baina **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** horietako aunitz etxeko pantailan ikusteko aukera eskainiko du. Heldu den urriaren 24an eta 25ean Elizondoko ferien txanda izanen da. Igande horretan, urriak 26, Beran Lurraren Eguna egingen da. Azaroaren 1ean Arantzak hartuko du lekukoa eta Baserritarren

Eguna egingen da Ekaitza Elkar-teak antolatuta. Azaroaren 14an Doneztebeko feriak izanen dira, eta Lesakako feriak, azkenik, azaroaren 20an. Aipatutako guztietara ailegatuko da **TTIPI-TTAPA TELEBISTA** eta irudi eta elkarrizketarik interesgarrienak bilduko ditu ikus-entzulei eskaintzeko.

BESTETAKO DVDAK SALGAI

Doneztebe, Lesaca, Bera, Sunbilla, Arantza eta Etxalarko bestekin egin bezala, **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** Igantziko San Migeletako DVDak ere salgai paratu ditu. Interesatuak 948 635458 telefonora deitu behar dute.

DISKAK



Gauari, gauarekin

LAUROBA

GOR, 2008

Utikan eta Hamaika bide taldeetan ibili eta gero, 2004ko udan eman zioten hasiera eta lker eta Haritz Lauroba anaiek Lauroba proiektuari Intxaurrendoko gaztetxean. Hortik guttira, Alain Urkola batu zitzaion, eta 2005eko neguan kaleratu zuten 9 abestiz osaturiko maketa. 2006an Donostiako Pop-Rock lehiaketa irabazi, eta horrekin lau kantuz osatutako maxia kaleratu zuten 2007ko martxoan. Taldea Borja Fernandez baxu jotzailearekin sendotu zuten, eta geroztik kontzertuak eskainiz ibili dira. Aurtengo otsailean Tolosako Bonberenean *Gauari, gauarekin* diskoa kaleratu zuten, 14 abestiz osatua. Denetariko gaiak lantzen dituzte, baina batez ere maitasuna eta sexua bezalakoak. Eskualdean barrena ere ibiliak dira, aurtengo Arantza Rock bestan han izan baitziren.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (irailaren 26tik urriaren 3ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 30,00 € (-2,00)

Zerri gizena
1,193€ kilo. (-0,033)

Zerramak:
0,600€ Kg/bizirik. (-0,020)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,07 (=)

1.koa 3,77 (=)

2.koa 3,08 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,17 (=)

1.koa 3,87 (=)

2.koa 3,18 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruak 130,00 (=)

idixkoak 168,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruak 108,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,10/3,20

Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 8,40/8,20

8-10 kilokoak: 7,10/7,60

JAKIN BEHARREKOAK

Sendagai generikoak erabiliz, gastua dezente murriztuko dela dio Irachek

Prezioan alde handia dago generiko eta ez generikoen artean

Krisi hotsa somatzen da azken aldian han eta hemen. Ez, ordea, kontsumitzaileen artean bakarrik, Administrazioak ere nabaritu baitu. Nafarroako Gobernuak, erraterako, aurten diru-sarrerak murriztu zaizkiola adierazia du eta horri aitzin egiteko neurri batzuk hartu beharko dituela. Horietako bat da, hain zuzen, Irache Kontsumitzaileen Elkarrekin proposatutakoa, eta hurrengo lerroetan azalduko duguna.

Irachek sendagai generikoak erabiltzeko deia luzatu du. Konposizio bera duten botikak dira sendagai generikoak eta seguruak, baina markarik gabek, eta gainera, ezagunak direnak baino merkeagoak dira.

Osasun Departamentuaren aurrekontuaren %20a farma-



SENDAGIAK ETA EUREN GENERIKOAK PREZIOAK

ANTIBIOTIKOAK	
Clamoxil 500 mg	2,40 euro
Amoxi Edigen EFG 500 mg (generikoa)	1,65 euro
ANALGESIKOAK, SUKARRA	
Termangin 500 mg	1,39 euro
Paracetamol 500 mg (generikoa)	0,73 euro
ANTIINFLAMATORIOAK	
Neobrufen 400 mg	3,12 euro
Ibuprofeno P. E. 400 mg (generikoa)	2,09 euro
ANTIDEPRESIBOAK	
Seroxat 20 mg	20,26 euro
Paroxetina Merck (generikoa)	14,05 euro
KOLESTEROL ERREDUZITZAILAK	
Zocor 20 mg	6,43 euro
Simvastina Bexal (generikoa)	5,81 euro

ziako gastuei dago-
kie, urtean 170 milioi
euro. Iracheren ustez,
sendagai generikoak
erabiliz, gastu hori
murriztu egingen litza-

teke. CIES erakun-
deak Iracheri eginda-
ko ikerketa baten ara-
bera, herritarren
%82ak sendagai ge-
nerikoak ezagutzen

ditu, eta %88ak ongi ikusten ditu. Gainera, kontsumitzaileen %32ak sendagai generikoak emateko eskatzen dio mediku edo farmazialariari.

Beraz, marka eta izen ezagunak alde batera utzi, eta ahal den neurrian sendagai generikoak erabiltzeko aholkatu du Irachek, eta farmazialari edo medikuari horrelako botikak eskatzeko ere aholkatu die herritarrei, sakelari mesede egingen diola iritzita.

Irachek zenbait sendagairen prezioak ere jakinarazi ditu, generikoak diren eta ez diren artean konparazio bat egiteko. Zenbaitetan prezioan dagoen alde %90ekoa da generiko eta ez generikoen artean. Irachek utzitako datuekin ondoko taula hau osatu du gu irailako prezioekin.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

LEHIAKETAK

BORTZIRIAK

Azaroaren 28a bitarte, Bortziritako Haur eta Gazteen Ipuin Lehiaketa. Xehetasunak 12. orrialdean.

TXAPELKETAK

NAFARROA

Urriaren eta azaroaren, Euskal Kantu Txapelketa. Xehetasunak 25. orrialdean.

IPARRALDEA

Urriaren eta azaroaren, Iparraldeko Bertsulari Txapelketa. Xehetasunak 39. orrialdean.

KULTUR EGUNAK

ETXALAR

Urriaren 24, 25ean eta 30ean, Kultur Egunak. Xehetasun gehiago 11. orrialdean.

ARANTZA

Urriaren 31tik azaroaren 2ra, Kultur Egunak. Xehetasunak 13. orrialdean.

AZOKAK/FERIAK

ELIZONDO

Urriaren 24an eta 25ean, Elizondoko feriak. Xehetasun gehiago erdiko gehigarrian.

BERA

Urriaren 26an, Lurraren Eguna. Xehetasun gehiago 9. orrialdean.

ARANTZA


Azaroaren 1ean, Baserritarren Egunen XIII. edizioa.

OSPAKIZUNAK

ETXALAR

Urriaren 18an, Usategietako Igandea. Xehetasunak 11. orrialdean.

LIBURUAK



Intimitatea

HANIF KUREISHI
TXALAPARTA

Zergatik uzten diogu maitatzeari? Zein da maleta prestatu, atetik atera eta sekula ez itzultzeko unea? Liburu honek protagonistak trantze horretan dago. Bikotea eta bi semeak utzi eta etxetik alde egin aitzineko gauean bere bizitza ustez arrakastatsua sortzen dion asegabetasunaren arrazoiak aletzen joanen da. Gogoan aitzinera eta gibelera ibiliko ditu era ezin gordinagoan harreman barruko miseria tikiak, amore emateak, ohitu-

rak, desilusioak... bikotearen intimitate biluzia. Hanif Kureishi idazlea Britainia Handikoa da, jatorri pakistaniarra duena, antzerkian eta zinean aunitz idatzitakoa da. *Intimitatea* liburua 1998an idatzi zuen, ingelesez, eta orain Harkaitz Canon euskarara itzuli du. Nobela kontaktzen dena benetan gertatutakoa omen da, hau da, idazlea bera nola banantzen den bere emaztearengandik eta bi ume tikiak etxean nola uzten dituen.

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da.
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da
(nahi izanez gero argazkiarekin).
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIZAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

LANA

301. Eskariak
302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak
402. Akademiak

MOTORRA

501. Salerosketak
502. Tailerrak

ANIMALIAK

601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

DENETARIK

701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

HARREMANAK

801. Agurrak

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabekak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurraekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ETXEBIZITZAK 101 Saldu


LEITZA. Herrierdian, Uhar-te Gotzaina kalean, bigarren eskuko pisu moblez-tatua salgai. 3 logela, su-kaldea, egongela eta komuna. 6699 174053.

LESAKA. Bittiria kalean 110 m²ko pisua salgai. Prezio ona. 670 319380/607 769519/ 948 637347.

BERA. Pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, igogailua eta apartakalekua. 200.000 euro negoziagarriak. 606 586709.

DONEZTEBE. Pisua salgai. 156.000 euro (26.000.000 pta). 607 978656.

DONEZTEBE. Etxebizitza independentea salgai, zaharberritua. 2 solairu eta lokal komertziala. Merkatarien Karrika 27. Zuzenean promotoratik. 607 978656.





Baztango

promoción inmobiliaria

**Etxebizitzaren errehabilitazioa
Tasazio eta balorazioa**

Ondasunen salmenta eta alokairua

Abokatua:

- Proiektu urbanistikoak
- Lurzoruen gestioa
- Herentziak

Tfn. 948 630552 Kattonberri karrika, 4
Faxa 948 630106 31780 Bera. Navarra

Dokumentuak, Zuzenbidea
Kalea 115 48100 BERRIO
3. Solairua, 2. Solairua eta
Inbentarioa. Eskaintzak eta
zerbitzua onak.

630 948271

LESAKA. Bittiria plazan pisu moblez-tatua eta berri-tua salgai. Sartzeko prest eta egoera onean. 180.000 euro negoziagarriak. 650 405532.

ETXEBIZITZAK 103 Errentan eman

ETXALAR. Pisua errentan emateko. Moblez-tatua eta berogailuarekin. 943 638131.

ETXEBIZITZAK 104 Errentan hartu

LESAKA edo inguruan etxebizitza bat errentan hartuko nuke. 667 492616.

GARAJEAK/LOKALAK 109 Errentan eman

BERA. Legia karrikan 30m²ko lokal komertziala errentan emateko. 646 336291.

LURRAK/ORUBEAK 112 Saldu

DONEZTEBE. 250 m²ko lursail urbanizatua salgai. 617 059683.

DONEZTEBE. 490 m²ko

lursail urbanizatua salgai. 617 059683.

ZERBITZUAK 205 Zurginak

ARANTZA

Zurgindegia.....

- Klase gurietako zurgin lanak
- Eskatu surretakontuak
- Kompartimentuak gela

Jaxe Migel Erandioa
Tel: 948 634 045 - 647 810 144
Gorritze. ARANTZA

ZERBITZUAK 208 Bertzelakoak

Mota guztietako **fruta-ربولak** kimatzen dira. 666 283847.

Arropa-dendetarako **jostun lanak** egiten dira. 688 690585 (Helena).

PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordutik

948 272011 (mugak)
948 580975

Jaxe Urutia 42-20 - ELIZONDO

LANA

301 Eskariak

Emakume bat sukaldari laguntzaile edo etxeko garbiketari lanetan ariko litzateke. Lanaldi osoan edo asteburuetan. 628 767324. Berako **emakume euskaldun** batek goizez edozein

lan egiten luke. 630 972189.

LANA 302 Eskaintzak

ARANTZA. Aterpean sukaldari laguntzaile behar da. 948 634179.

ELIZONDO. Ileapaindegi batean lan egiteko neska bat behar da. 948 452467.

BERA. Ibardingo Migel Bentan frantsesa dakien pertsona bat behar da zerbitzari lanetan aritzeko. Eguerdi eta asteburuetan. 948 631394.

BAZTAN, MALERREKA eta **BORTZIRIAK** aldean eraikuntzan aritzeko langile ofiziala eta peoia behar dira. Baldintza onak. 619 469784.

BERA. Yoan ile-apaindegi-ian ile-apaintzaile behar da. 948 630177.

MOTORRA 501 Salerosketak

Xsara HDI 1.9-90 zaldi salgai. Egoera onean, 2004ko urrikoa. 650 948330.

Suzuki Samurai luzea salgai. 669 980872.

Kawasaki ZZR 1.100 motorra salgai. Gurpil berriak eta maletarekin. 45.800 km. SS-4911-AJ matrikuladuna. Egoera onean. Prezioa: 2.000 euro. 646 769186.



Seat Ibiza 1.400 autoa salgai. Gasolina. Egokia gida-baimena atera berri duenarentzat. 2003koa, parrotarekin eta haize egoki-

tuarekin. ☎699 279940.

Seat Ibiza SDI autoa salgai, 2001ekoa. 104.000 km. 4.000 euro negoziagarriak. ☎618 889953.

MOTORRA

502 Tailerrak

TALLERES SANTESTEBAN
948 450282 • DONEZTEBE

ESKAINITZAK
Clio III 1.5 DCI, 2007koa
Kangoo 4x4
Kangoo Gran Volumen
Kangoo furgoneta
Kangoo 1.5 DCI, 2006koa

BIGARREN ESKUKOAK
Volkswagen Golf 1.9 DTI
110 CV, Clio Confort 1.5
DCI, Peugeot 307 1.6,
Laguna 1.9 DCI 120 CV.

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK



ANIMALIAK

602 Salerosketak

Ahari mutur gorria, adarrik gabekoa salgai. 6 urtekoa. ☎678 959534.

Basurde ehizarako **4 zakurkume** salgai. 2 hilabeteak. Aita eta ama ehiztari onak. ☎948 387098/639 922256.

2 zakurkume salgai, merke. Ama teckel enano arra-



zakoa eta aita sagu-zakurra. ☎647 810149.

Monturako zaldiak salgai.

4 eta 8 urte artekoak. ☎625 704419 /618 206168.

Bi hilabeteko **artzain-zakurkume alemaniar** emea salgai. ☎659 597051.

DENETARIK

701 Galdu/aurkituak

SUNBILLA. Cocker Spaniel arrazako bi zakur galdu dira, bat beltza eta bertzea kanala kolorekoa. ☎605 878202.

LEURTZAKO URTEGIE-TAN sakeleko telefono bat aurkitu zen irailaren 18an. ☎948 451957.

DENETARIK

702 Salerosketak

ETXALAR. Esne tanke erreferigeratua salgai. Manus markakoa eta 100 litroko kapazitatearekin. ☎948 635168.

Ongarria hedatzeko erremolkea salgai, traktore haundientzat. ☎649 575549 (goizez deitu)

Kalefakzioko kaldera salgai, gas propanokoa. 8 bat erradiadore eta ura

MERKATU TTIKIA



zure iragarkia 3 tokitan
Aldizkaria
+ Telebista
+ Internet

8€

ttipi-ttapa • 948 635 458 • www.ttipi.net

berotzeko balio duena. ☎638 236161.

Apai metalikoak salgai. ☎660 393436.

Belarra idortzeko tresnak salgai. ☎678 959534.

DONEZTEBE. Mahaiak, taburete altuak eta aulkiak salgai. Egoera onean eta berriak. Elkarte eta txokotararako egokiak. Bi neurritakoak. ☎619 913375.

Teila zaharrak salgai. ☎669 980872.

Bigarren eskuko **plastiko**ko **550 kaxa** salgai. 280 kaxa 80x60x22 neurrikoak eta 270 kaxa 40x60x30 neurrikoak. ☎618 542592.

Aluminiozko 190 apai salgai. Bigarren eskukoak. 12 metroko luzera eta

aldaketa borroka borroka eragin

LAB
langile abertzaleen batzordeak

Ahukatua:

Abokatua bi asteetatik behin etorriko da ortziral arratsaldetan, harrera ordua hartzeko telefonoz deitu bulegora eta ordua emanen zaizue

HARRERA ORDUAK:

BERA-ko bulegoan. Errotazar, 5 behe Tel. :948.630670
Astelehena 9:00 - 13:00 • Asteazkena 16:00 - 19:00

ELIZONDO-ko bulegoan. Jaime Urrutia, 41 behe
Tel. :948.581363

Astelehena 16:00 - 19:00 • Osteguna 9:00 - 13:00

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



IRATI PONBAR gure printzesak 3 urte bete ditu urriaren 11n. Zorionak familiaren partetik.



IZARO LEONET AROZENAK abuztuaren 3an urtea egin zuen. Zorionak Aranoko zure familia osoaren partetik. Muxu haundi bat polit!



UXUE ITURRALDE INTZA. 2 urte beteko ditu gure etxeko salterak urriaren 20an. Muxu haundi bat Lesakako familiaren partetik.



KIARA AGUDO SANZ eta EKHI EZKURRA SANZ. Urriaren 8an gure printzesak 4 urte bete ditu eta gure pottolok 8 hilabete. Zorionak ailitxi-amatxi eta osabazeben partetik. Hemen egongo gara marrubizko tarta jateko zain.



Urdazubiko bi barrabas hauek urriaren 7an eta 10ean 6 eta 4 urte bete dituzte. Zorionak **ZUHAITZ** eta **PABLO** Berniren partetik, eta segi niri bisitak egiten!



ZUHAITZ BAZTERRIKA eta **PABLO IRAZOKIK** 6 eta 4 urte bete dituzte urrian. Zorionak eta muxu bana.



LAURAK urteak beteko ditu urriaren 16an. Zorionak eta muxu haundi bat Lesakako familiaren partetik.



ITXASOK 8 urte beteko ditu urriaren 23an. Zorionak eta muxu haundi bat Rufus eta Lesakako familiaren partetik.



LEIRE GOMEZ GOIETXE beratarak 5 urte beteko ditu urriaren 18an. Aunitz urtez eta musu mukuru handi bat! Amatxo, aitaxo eta familia.



IRATI PONBAR LARRALDE. Berako sorgintxo honenek urriaren 11n 3 urte bete ditu. Zorionak Iratixu! Muxu pottolo bat Joseba eta Mariaren partetik.



JOEL beratarak 2 urte beteko ditu urriaren 26an. Aunitz urtez eta bi muxu, *atia*, *atio*, Aintzana eta Mikelen partetik. Zorionak!



JULEN ZELAIETAK urriaren 8an urteak bete ditu. Zorionak txapeldun zure familiaren partetik!!



Berako **ONINTZA ZAPIAIN ABUINAK** urriaren 23an 8 urte beteko ditu. Zorionak *maripulseras*. Ea hari aunitz oparitzen dizkizuten. Muxuak familiaren partetik.



UXUE IBARRA MARIEZKURRENA. Urriaren 28an urtea beteko da lehen aldiz zure aurpegi polit hori ikusi genuenetik. Zorionak printzesak! Muxu bat! Aitabxo eta amatxo.



UXUE IBARRA MARIEZKURRENA. Urriaren 28an urtea egingen du. Zorionak Sunbilla eta Ezkurra-ko familien, eta batez ere izeba Maiteren partetik. Muxu bat.




NATALIA GOIENETXE lesakarrak azaroaren 19an 5 urte egingen ditu. Muxu haundi bat familiaren partetik. Zorionak!



JAVIER eta **JULIANA** donamariarrek urriaren 1ean 25 urte bete dituzte ezkondurik. Zorionak eta muxu haundi bat alabaren partetik.



XAN LARRAÑAGA PRADERE saratarak 5 urte beteko ditu urriaren 27an. Zorionak Berako eta Sarako familiaren partetik.



Gure lehengusu **XANEK** 5 urte beteko ditu urriaren 27an. Zorionak Maialen eta Arantxaren partetik.



ZURIÑE SARRATEA JABALERA beratarak 4 urte beteko ditu urriaren 21ean. Zorionak familia guztiaren partetik.



PAULA PERURENA LABAIEN leizarrak 6 urte bete ditu urriaren 14an. Zorionak printzesa! Bihotz bihotzez muxu bat!



HILARIO IRIGOIEN arraitzarrak urriaren 19an urteak beteko ditu. Hain sexia izaten segitzen ahal duzu? Zorionak zure iloben partetik.



IDOIAK urteak beteko ditu urriaren 22an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat. Ea zer moduzko gisadua prestatzen diguzun igandean!



Aresoko **JAIONE** eta **JONI**: urriaren 25a bertan dela... Atera nahiko txanpain el Zorionak eta ongi pasa zuen Aresoko laguneren partetik.

zure argazkia,
marrazkia...
telebistan
ikusit nahi duzu?



Mari More

asteartetan 17:00etan
larunbatetan 11:00etan
TTIPI-TTAPA TELEBISTAN

deskontuak

DENDA HAUTAN EROSTEAGATIK



KATEA-BIKE • BERA

%5eko deskontua konponketetan

FOTO-ERAGAZKIZ
GOIKO

GOIKO Argazki-denda • BERA

%10eko deskontua kopia digitaletan

FANTXIKE

FANTXIKE Jantzi-denda • ELIZONDO

%10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan

ETXARTE

ETXARTE Bitxi-dendak • LESAKA

%10eko deskontua bitxietan



INTZURI Optika • LESAKA

%10eko deskontua

SARIDUNAK:

- 1** 4 liburua (Elkar):
Marian Irazoki (Bera)
- 2** Ttanito puzzlea (Ikastolen elk.):
M^a Dolores Albizu (Lesaka)
- 3** Txapela Buruan kamiseta:
Blanca Perez (Etxalar)
Ainhoa Etxebeste (Sunbilla)
- 4** Kirolez Badakit mahai jolasa (Argia):
Arantxi Diez (Zubieta)
- Argiaren kamiseta:
Lupe Mujika (Lesaka)
Pilar Pabolleta (Bera)
- Argia aldizkariaren
6 hilabeteko 2 harpidetza:
Santiago Mitxelorena (Etxalar)
M^a Eugenia Sagardoi (Etxalar)
- 5** Ola sagardotegiko DVDa:
Isidoro Goia (Arantzaz)
- 6** Oninart 2 kamiseta:
Asun Ulazia (Etxalar)

SENDAVIVA 4 sarrera
Egoitz Hernandezena

AQUARIUM 2 sarrera
Anitz Otxoteko

ORAIN www.ttipi.net

bitartez ere parte har dezakezu. Animatu!

ESKATU ZURE TXARTELA
948 63 54 58 telefonoan



ttipi txartela rekin
beti irabazten da!

9 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu
asteleheneretik ostiralera
09:00-16:00

Tel: **948 63 54 58**

1 LAU LIBURU

Hogeita sei urte gerago • liburua
Furia
Denboraren makina 10-12 urte
Milly Moon

Lote 1

erein
ARGITALEKUA
www.erein.com

2 PUNPALAPAN JOLAS KANTAK DVD+CD

Lote 1

U
www.uisia.net

3 Txapela Buruan

KAMISETA

2 Lote

txapela buruan
www.txapelaburuan.com

4 Kirolez badakit MAHAI-JOLASA

Lote 1

ARGIA
www.argia.com

5 MANENT BISAI 2 DISKA

Lote 1

fundazioa
www.fundazioa-e.com

6 BI KAMISETA

Lote 1

oninart
www.oninart.com

ttipi saskia **TTIPI SASKIAren ZOZKETAN**
JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE
Bidali SMSa idatziz **TTIPI SASKIA** eta zure **IZEN-DEITURA 5767** ra



SENDAVIVA
Aventura y diversion para toda la familia

Lote 1
4 sarrera
2 heldu+2 hour

AQUARIUM
DONOSTIA
943 44 00 99
www.aquariumes.com

Lote 1
2 sarrera

Zozketan parte hartzeko epasa, urtaren 14tik 22ra, irabazlearen izenak urtaren 30eko aldizkarian argitaratuko dira. Mezuaren kosta 1,20€ (BEZ gabe). Zure duak ttipi-irabazlearen fitxategian gordeko dira auzerantzaren izenen diren eskaintzen berr emateko. Zuzenketa edo deuseztatpenen bat egiteko deitu 948 63 54 58ra.

URRIAK 25, LARUNBATA
17:00 LIZUNIAGAKO ISOERA (LASTERKETA)
18:30 BARAZKIOPIL LEHIAKETA

URRIAK 26, IGANDEA
10:00 TXALAPARTA, ESKULANGILEEN AZOKA ETA ERAKUSKETA. BARAZKI ERAKUSKETA
10:30 "BERATARRAK" ARGAZKI ERAKUSKETA LABIAGA IKASTOLAN
11:00 GASNA ETA SAGARDO LEHIAKETAK (LEHIAKETETAN PARTE HARTZEKO
BORTZIRIETAKO EKIDIZLEA IZAN BEHAR DA. TXAPELKETARAKO GASNAK ETA SAGARDO
BOTILAK LEHIAKETA HASI BAINO ORDU TERDI LEHENAGO HARTUKO DITUZTE
ANTOLATZAILEEK RICARDO BAROJA ESKOLAN).
12:00 BERAKO BANDA, MUSIKA ESKOLAKO TRIKITILARI ETA AKORDEOILARIAK
13:00 LEGAZPIKO KOROSTI DANTZA TALDEA, BERAKO TXISTULARIAK...
16:30 ALTZATE KARRIKAN HAURRENTZAT IKUSKIZUNA "HIPO ETA TOMAX" PAILAZOAK
17:30 SARI BANAKETA, ENKANTEA ETA BERTSOJARIK (ERIKA LAGOMA ETA JULEN ZELAIETA)
18:30: DANTZALDIA: IMUNIZO TA BELOKI.
TALDOAK, SAGARDOA, GAZTAINAK ETA ESKULAKO PRODUKTUAK EGUN GUZIAN

* EKITALDIAK ALTZATEKO KARRIKAN EBINEN DIRA EBURALDI ONAREKIN,
ETA EURIA BADA BERRIZ KIROLEDUAN ETA ALTZATEKO FRONTOIAN.

ANTOLATZAILE: GURE TXOKOA ELKARTEA

URRIAK 26 BERA

LURRAREN EGUNA 2008

